

2026KO URTARRILAREN 29AN UDALBATZA OSOAK EGINDAKO OHIKO BATZARRALDIAREN AKTA.

LEKUA: Beasaingo Udaletxea

ARETOA: Batzar Aretoa

EGUNA: Hogeita bederatzia

HILABETEA: Urtarrila.

URTEA: Bi mila eta hogeita sei.

HASIERAKO ORDUA: Arratsaldeko seietan.

BATZARRALDIAREN IZAERA: Ohikoa.

DEIALDIA: Lehena.

OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA: Hamazazpi (17)

UDALBURUA: LEIRE ARTOLA UGALDE

BILDUAK:

EAJ-PNV

- ADUR UGARTEMENDIA LEUNDA
- AINHOA ARRESE ARRATIBEL
- MARIOLA PASCUAL PAREDES
- EDORTA DIAZ DEL RIO
- MARIA ELENA RUIZ ZABALA
- MICHEL VENTUREIRA IRIZAR
- OLATZ ARRESE IMAZ
- AITOR ALDASORO ITURBE

BEASAINGO EH BILDU

- HASIER AGIRRE ELKOROBEREZIBAR
- NEREA MANZISIDOR MENDIZABAL
- YOLANDA HERNANDEZ RODRIGUEZ
- IKER URTEAGA REBOLLAR
- AITOR URDANGARIN IRASTORZA

SOCIALISTAS VASCOS-EUSKAL SOZIALISTAK

- EVA ALVAREZ ATANES
- ANGEL REDONDO FERNANDEZ

ELKARREKIN PODEMOS EZKER ANITZA / IU-ALIANZA VERDE

- WESLEY ARITZ CORSITTO AGIRRE

IDAZKARIA: ITZIAR AROZTEGUI APAOLAZA

Bileran ere parte hartu dute Lurdes Alegria Lasa Kontuhartzaileak eta Lurdes Auzmendi interpretariak.

Gai zerrendarekin hasi baino lehen Alkate andreak adierazi du minutu bateko isilunea egingo dela atzoko egunean bozeramaile taldean adostu eta azken urteetan egin den bezala, holokaustoko biktimen aldeko nazioarteko eguna urtarilaren 27an izan zelako.

Isilunea amaitu ostean, gai-zerrendari ekin zaio

1.- AURREKO AKTAK. 2025-12-22ko aktaren onespena.

Aho batez onartu da,

2.- HERRITARRAK BATZORDEKO PROPOSAMENAK:

a.- Kontratazioa:

- ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA-ZERBITZUAREN KONTRATUA ESLEITZEKO PROPOSAMENA. 2025BIBO0010

Ezagutzera emanda 2026-01-07ko kontratazio mahaiaren esleipen proposamena, Herritarrak batzordean ere kontu eman zena.

"2025-12-22ko bileraren jarraipen gisa, ezagutzera eman da 2025-12-23an erregistro elektronikoaren bidez (2025-10094), OHL SERVICIOS INGESAN SAK, bere legezko ordezkaria den, Benjamin Delgado Peral jaunaren bidez, SPKLren 44.3 artikulua onduzko idazki intzidentala aurkeztu du. Eskaintza ekonomikoaren zenbatekoa zuzentzea, guztiz gaindigarria den akats material batengatik.

Idatziarekin batera ordezkartza-ahalmena aurkezten du.

Aztergai ditugun ondorioetarako, idazkiak honako hau dio:

- Gainditu daitekeen akatsa egin dute kontratuaren iraupenaren prezioa (3.835.506,05 €) esleitzean nahiz eta, zalantzarik gabe, asmoa izan eskaintzan jasotzea urteko prezioa (1.278.502,02 €).

- Eskaintza ekonomikoaren eredu transkripzioa egiteko akats materiala da, eredu horretan zetorren Euro/urteko esaldia utzi baita.

- Kontratuaren prezioa 3 urteren artean zatitzeko eragiketa matematiko soil batekin, adierazitako urteko emaitza ematen du, urteko lizitazio-prezioaren azpitik geratzen dena eta gainerako enpresen urteko eskaintzaren tartean dagoena.

- Kontratuen inguruko Errekurtsoen Administrazio Auzitegi Zentralaren urriaren 30eko 1589/2025 Ebazpena aipatzen dute, non adierazten duen: Sektore publikoko kontratazioaren printzipio anti-formalistaren arabera, kontratazio-organoari aukera ematen dio aurkeztutako eskaintzari buruzko argibideak eskatzeko, baldin eta akats material edo formalak baditu eta horiek zuzendu badaitezke, zuzenketatik ez bada ondorioztatzen eskaintzaren aldaketa dagoela.

Kontratazio Mahaiak, bestalde, Ebazpen hauek aztertu ditu, biek aztertzen ari garen kasuaren antzekoa ebazten dutelako:

- KEA Oren maiatzaren 12ko 079/2021 Ebazpena (urte bateko prezioa eskaini izana, kontratuaren iraupeneko 5 urteetako prezioaren ordeztasun).

- Madrilgo Erkidegoko Kontratazio Publikoko Administrazio Auzitegiaren erabakia, 31/2022 Ebazpena (emandako ereduak "urteko prezioa" aipatzen du, eta eskaintzak kontratu osoari dagokion zenbatekoa islatzen du, luzapenik gabe: 3 urte).

KEAOren Ebazpena (laburbilduta):

- Excepcionalmente, los datos relativos a la oferta pueden corregirse o completarse de manera puntual, principalmente porque sea evidente que requieren una mera aclaración o para subsanar errores materiales manifiestos, a condición de que esa modificación no equivalga a proponer en realidad una nueva oferta.

- La exclusión del licitador no será procedente, y procederá la subsanación o aclaración, cuando dicha verdadera voluntad del licitador pueda deducirse del contexto de toda la proposición, de forma indirecta e interpretando toda ella en su conjunto, de modo que pueda reconocerse de modo indubitado su intención cierta, aunque haya sido ocultada por un error o modificación en su plasmación. En estas circunstancias este Órgano ha considerado que la aclaración es una confirmación del contenido de la oferta según se deduce de su contenido e interpretación global (ver, en este sentido la Resolución 162/2020).

- Madrilgo Erkidegoko Kontratazio Publikoko Administrazio Auzitegiaren erabakia, 31/2022 Ebazpena (laburbilduta):

- Es preciso discernir si la mesa de contratación pudo conocer con la documentación presentada que la oferta presentada era por tres años, y, por ello, un múltiple de la anual requerida por los pliegos, dando prevalencia a la voluntad interna del licitador, que se manifiesta en el escrito de aclaración/subsanación.

- Es consolidada doctrina, sentada entre otros en Informe 5/1999, de 24 de noviembre, 4/2007 o 3/2009, de 10 de junio de la Junta Consultiva de Contratación Administrativa de la Comunidad de Madrid, que cuando se trate de errores que permitan a la mesa conocer la oferta real, sin modificación de los conceptos de la misma, por un simple cálculo matemático, serían subsanables.

- También es jurisprudencia consolidada del Tribunal Supremo y de los órganos encargados de la resolución del recurso, la de considerar que en los procedimientos de adjudicación debe tenderse a lograr la mayor concurrencia posible (STS de 21 de septiembre de 2004, con cita de la STC 141/1993, de 22 de abril), siempre que los licitadores cumplan los requisitos establecidos como base de la licitación.

747/2018 TACRC Ebazpenetik aurrera, EKren 103,1 artikulua ere aipatzen da Administrazioaren jardunerako premisa gisa, eta legeak interpretatu behar dira horren arabera, hau da, eskatutako dokumentazioa aurkeztean akats bat egin duen lizitatzailerik prozesutik ez kanporatzea, erratu den lizitatzaileri prozesua ezabatzeak dakarren proportzionaltasun-printzipioari eta gehiegizko penaltasunari dagokienez.

Ebazpenak eta aipatutako lege-erreferentzia kontuan hartuta, Kontratazio Mahaiak ulertzen du:

- Akats material bat dagoela eskaintza kontsignatzean, lizitatzailak kontratuaren iraupeneko hiru urteetarako kalkulaturako kostua urte baterako dela aipatzen duenean, eta hori eskaintzaren eta lizitazio-prezioaren arteko desproporzio handiagatik.

- OHL SERVICIOS INGESAN SArek ordezkariak proposamen ekonomikoak ireki eta hurrengo egunean emandako azalpenak lizitatzailaren benetako borondatea berresten du, eta horrek ez du esan nahi lizitatzaila guztien arteko tratu-berdintasunaren printzipioa urratzen denik (SPKLren 1. artikulua), eta ez du esan nahi eskaintza berria egin denik (ikus, adibidez, KEAOren 121/2018 Ebazpena eta Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren 2012/03/29ko epaia, C-599/10 auzia, ECLI: EU: C: 2012:191).

Ondorioz, Kontratazio Mahaiak OHL SERVICIOS INGESAN SArek eskaintza ekonomikoa onartzea erabaki du, urteko eskaintza 1.278.502,02 eurokoa eta kontratu osoarena (3 urte) 3.835.506,05 eurokoa dela kontsideratuz.

Lizitatzailleek guztira lortutako puntuazioa ondorengoa izan da:

Lizitatzailleek	Memoria teknikoa (puntuak puntos)	Eskaintza ekonomikoa. €/urteko Oferta económica €/año	Baja baja	Puntuak puntos	GUZTIRA TOTAL
AURRERANTZ S. COOP. DE INICIATIVA SOCIAL,	31,97	1.371.648,81€ + 0€ (BEZtik salbuetsita/exento de IVA).	1,0922%	1,09	33,06
OHL SERVICIO INGESAN, S.A.	47	1.278.502,02 + 51.140,08	7,8089%	7,81	54,81
MATIA GOXARA, S.L.	47,76	1.372.927,38 + 54.917,10	1,0000%	1,00	48,76

Horren ondorioz, Kontratazio Mahaiak kontratazio organoari (Oso Bilkura) ondorengo erabaki proposamena egiten dio:

Lehenik: OHL SERVICIO INGESAN, S.A., enpresari ondorengo zerbitzu-kontratua esleitzea: Beasaingo etxez etxeko laguntza.

Bigarren. Esleipena baldintza-pleguen (administratiboa eta teknikoa), eta enpresak aurkeztutako eskaintzaren arabera egiten da eta horren ondorioz esleipenduna behartuta dago baldintza agiri administratiboaren 4. Eranskinean jasotako pertsonala subrogatzea.

Hirugarren. Urteko esleipen prezioa: 1.278.502,02 + 51.140,08 € (BEZ)= 1.329.642,10 €/urteko.

Laugarren. Egikaritze epea: Hiru urte, kontratua sinatzen den hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Luzatzeko aukera: EZ

Bosgarren. Berme epea: Hiru hilabete zerbitzuaren harrera egiten denetik

Seigarren. Kontratuaren arduraduna, Gizarte Ongizateko azpisailaren arduraduna izango da.

Zazpigarren. Esleipendunari eskatzea hamar egun balioduneko epean, errekerimendua egin eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita, kontratazio plataformaren bidez dokumentazio hau aurkez dezala:

1. 191.775,30 €ko behin betiko fidantza edo banketxeko abala.
2. Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzen duen ziurtagiria, EJZn alta emanda.
3. Arrisku profesionalengatiko kalte-ordainen aseguru poliza, gutxienez a 600.000,00 €koa.
4. Arduradun teknikoaren izendapena. Arduradun horrek Europako Erreferentzia Esparruko C1 hizkuntza-gaitasunaren maila izan beharko du (ezaugarrien taulako 6. paragrafoan adierazitako moduan egiaztatu beharko da).
5. Beasaingo udalerrian dagoen bulegoaren identifikazioa (herrigunean edo 2 km-ko erradioan).

Zortzigarren. Fidantza eta bestelako dokumentazioa aurkeztu ondoren, behin betiko esleipena egingo da. Horretarako, Alkateari ahalmena emango zaio, eta, ondoren, dagokion administrazio-kontratua sinatu beharko da.

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Nerea Manzisidor Mendizabal andreak (Beasaingo EH Bildu): “Esleipen berri hau prestatu zenean ikusi zen udalak hainbat berrikuntza ezarri nahi izan zituela pleguak aurreikusitakoa kontuan izanda ematen du aurrera pausoak ematen ari garela. Hori horrela izan da ere badakigu zaintzarekin lotutako lanak orohar prekarioak eta feminizatuak izaten direla eta kasu honetan esleipendunaren helburu soziala, garbiketa zerbitzu orokorrak izatea kezkatu egiten gaitu. Badakigu memoria teknikoan jasotako puntuazioa egokia dela, baina horrek ez du kentzen ez-jakintasuna egotea zerbitzu hau emateko, hala nola, erabiltzaileek duten gaitasunen arabera enpresak zein formazio-egitasmo izango dituen horrelako zerbitzuak emateko. Kontu teknikoaz gain alderdi ekonomikoa ere aipatu nahiko genuke. OHLeak aurkeztu duen prezioa urtean, 1.329.642,10 €koa izan da (BEZ barne). Oinarriak prestatu genituenean, ongizate teknikoak egindako kalkuluaren arabera, milioia eta lauhuneko aurreikuspena egiten zen eta horrek esan nahi du 113.000 € gutxiagoko eskaintza egin duela enpresa honek. Horrek, gure zalantza areagotzen du. Prozesuan emandako balorazio-teknikoaz ez dugu zalantzarik, baina aipatutako bi ñabardura horiek kontuan izanda abstenitu egingo gara.”

Alkate andreak (EAJ-PNV): “Aldaketa bat egotea aurreikusten da eta aldaketa horrek puntu positibo eta negatiboak izan ditzake eta zentzu horretan ezjakintasuna agerikoa da. Ikuskizun eskainiko duten zerbitzua maila berekoa edo hobeagoa izango den. Jarraipen zorrotza egingo diogu, nola ez, baina kontratazio mahaiak eginiko proposamena da et horren inguruan guk ezer gutxi daukagu ezer esateko. Alderdi ekonomikoari buruz esan, 100.000 € gehiago aurreikusi zirela lizitazio prezioan eta kezkatzen gaituen kontuak izaten direla, batik bat, hainbeste garrantzia duten pertsonalaren soldatak. Orain esleipen proposamen hau egitea tokatzen zaigu, zerbitzua martxan jarritz eta udalari dagokion jarraipena eginez, bai zerbitzuak eta baita ere langileak okerrera egin ez dezaten, hori izan delako azkeneko lizitazioaren espiritu garbia.”

Horren ondorioz bozketa egin da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 12 (EAJ-PNV, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak, Elkarrekin Podemos Ezker Anitza / IU-Alianza Verde)

Aurkako botoak: 0

Abstentzioak: 5 (Beasaingo EH Bildu)

Beraz, kontratazio mahaiaren proposamena gehiengo osoarekin onartu da.

• 2023-01-26AN GOXARA SLU (GAUR EGUN MATIA-GOXARA SL) ENPRESAREKIN SINATUTAKO KONTRATUA LUZATZEA, LOINAZKO ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA-ZERBITZUA ETA EGUNEKO ZENTROA EMATEKO. 2022BIBO0003

Ezagutzera eman da Herritarrak batzordearen proposamena:

“Gaia: Etxez etxeko laguntza zerbitzua eta Eguneko Zentroa.

AURREKARIAK

I.- Lizitazio-espeditentea izapidetu ondoren, Udalaren eta GOXARA, SLUren arteko administrazio-kontratu bat formalizatu zen 2023-01-26an, honako zerbitzu hauek emateko:

- Loinatz eguneko zentroaren erabilera eta kudeaketa.

- Etxez etxeko laguntza zerbitzua Beasaingo udalerrian.

Gauzatzeko epea: Hiru urte, 2023-02-01etik aurrera. Luzapenak: Urtebeteko bi luzapen.

Luzapenak aipatzen dira, karatulako 7. paragrafoan, 3. artikuluan, administrazio-baldintzen agirian eta administrazio-kontratuaren bosgarren klausulan.

Horrez gain, luzapenak kontuan hartu dira kontratuaren balio zenbatetsia kalkulatzekoan (ikus karatulako 5. atala).

Kontratarentzat luzapena nahitaezkoa izateari dagokionez, administrazio-baldintzen agiriaren 3,2 artikulua honako hau aurreikusten du:

Luzapena kontratazio-organoak erabakiko du, eta nahitaezkoa izango da enpresaburuarentzat, baldin eta kontratuaren iraupen-epea amaitu baino gutxienez hiru hilabete lehenago jakinarazten bada.

Kontratuaren indarraldia 2026-01-31n amaituko da, eta ez da kontratuaren luzapenaren aurreabisiurik egin, kontratistak ez baitu zerbitzua baldintza berdinetan ematen jarraitu nahi, antza denez, Udalarekin izandako elkarriketetan.

II.- 2025-10-29ko osoko bilkuraren erabakiaren bidez, etxeko laguntza-zerbitzua kontratatzeke beste lizitazio bat egitea onartu zen, prozedura irekiaren bidez eta erregulazio harmonizatuari lotuta.

Loinatz eguneko zentroaren erabilera eta kudeaketa ez da lizitatzen, eguneko zentroen eskumena Gipuzkoako Foru Aldundiari dagokiolako eta erakunde horrek ahoz adierazi duelako zerbitzua bere gain hartzeko asmoa.

Lizitazioa Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratu zen 2025-11-3an eta kontratazio-plataforman 2025-11-4an.

Lizitazioan parte hartu duten hiru enpresek aurkeztutako proposamenak baloratu ondoren, Kontratazio Mahaia, 2026-01-8an egindako bilkuran, esleipen-proposamena egin du, eta kontratazio-organoari (Osoko Bilkura) pasako zaio 2026-01-29an egingo den bilkuran onartu ahal izateko.

Txosten hau sinatzen den egunean, Gipuzkoako Foru Aldundiak ez du formalki jakinarazten 2026-02-01etik aurrera Loinazko Eguneko Zentroaz arduratuko dela.

III.- 2026-01-19: gizarte-ongizate azpiarloko zerbitzu teknikoaren txostena, eguneko zentroko eta etxeko etxeko laguntza-zerbitzuko zerbitzuen jarraipen beharrari buruzkoa.

Etxez etxeko laguntza-zerbitzuaren funtsezko izaera:

- Asistentzia- eta prebentzio-izaerakoa da, erabiltzaileari bere etxean egoten laguntzera bideratua, etxean bertan moldatzeko eta ingurune komunitarioan integratzeko etxeko laguntza eta/edo laguntza pertsonala eskainiz, isolamendu-egoerak saihestuz.
- Eragin nabarmena du biztanleriaren bizi-kalitatean, eta, ahal den neurrian, aukera ematen die zerbitzu horren erabiltzaileei etxean bertan mantentzeko, arreta pertsonalizatua behar bezala emanez.

Eguneko zentroko zerbitzua:

- Etxeak ere nahasmendu publiko larria eragingo luke, eta zerbitzuari jarraipena emateko beharra dago, etxeko laguntza-zerbitzurako aipatutako arazoari berberengatik.

IV.- 2026-01-19: Idazkaritzaren txostena, sortutako arazoei aurre egiteko moduari buruzkoa.

V.- 2026-01-19: Kontu-hartzailearen kreditua badagoela egiaztatzen duen ziurtagiria eta fiskalizazio-informazioa.

OINARRI JURIDIKOAK

- 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena. 29. art.

-Kontratuen inguruko Errekurtsoen Administrazio Auzitegi Zentralaren azaroaren 24ko 1478/2022 Ebazpena (TACRC)

Ondorioz, aurrekariak eta oinarri juridikoak kontuan hartuta, Herritarren Batzordeak Udalbatzari aurkeztu dio honako akordio-proposamen hau:

Lehenik: 2023-01-26an Goxarara SLUrekin (gaur egun Matia-Goxara SL) sinatutako kontratua luzatzea (esp.: 2022BIBO0003), etxex etxeko laguntza-zerbitzua eta Loinatz eguneko zentroaren erabilera eta kudeaketa emateko, etxex etxeko laguntza-kontratu berria esleitu arte (esp.: 2025BIBO0010).

Bigarrenik: Erabaki hau kontratistari helaraztea.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz bozketa egin da eta aho batez onartu da Herritarrak batzordeko proposamena.

b.- GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREKIN SINATUTAKO HITZARMENA, LOINATZ EGUNEKO ZENTROA FINANTZATZEKO. 2025EKO EKITALDIRAKO MODULU EKONOMIKOAK ALDATZEA. 2023BIBO0002

Ezagutzera eman da Herritarrak batzordearen proposamena:

“AURREKARIAK

I.- 25-04-2024 Gipuzkoako Foru Aldundiaren, Gizarte Politikako Departamentuaren bidez, eta Beasaingo Udalaren arteko lankidetzara arautzeko kontratu-programa sinatu zen, mendekotasun-egoerek eragindako beharrezanean aurrea hartu eta erantzuteko zerbitzuak eskaintzeko, zehazki mendekotasun-egoeran dauden adinekoentzako Loinatz eguneko zentroa.

Hitzarmen honek eragin ekonomikoa 2023ko urtarrilaren 1etik duelarik, eta indarraldia 2026ko abenduaren 31 artekoa da.

4 urteko gehieneko epe hori amaitzean, hitzarmena berariaz luzatu ahal izango da ondoz ondoko urte naturaletan, gehienez 4 urte gehiagoz, betiere luzatutako ekitaldirako aurrekontu-xedapen egokia badago.

II. 2024-10-16- Gipuzkoako Foru Aldundiko Zaintza eta Gizarte Politiketako Departamentuak jakinarazi du 2024ko ekitaldirako modulu ekonomikoak onartzea aurreikusi duela eta Udalaren berariazko baimena eskatzen du komunikatuarekin batera bidalitako dokumentua sinatuta.

Ekitaldi honetako moduluak onartzeak III. eranskina aldatzea eta Beasaingo Udalarekin sinatutako hitzarmenean sartzea dakar.

Gipuzkoako Foru Aldundiak proposatutako erreferentziako tarifa berriak, gaur egun ditugun tarifarekiko batz besteko % 4,77ko igoera dute 2023koen aldean.

III. 2024-12-05 Udalbatza Osoak Gipuzkoako Foru Aldundiarekin sinatuta dagoen kontratu-programaren aldaketa onartu du, 2024ko ekitaldian Loinatz Eguneko Zentroa finantzatzeko erreferentziako gehieneko tarifari dagokionez (III. Eranskina).

IV.-2025.12-16 Gipuzkoako Foru Aldundiko Zainketa eta Gizarte Politiketako Sailak 2025eko ekitaldiari dagozkion moduluak onartzea aurreikusten duela adierazi du, eta ondorioak 2025eko urtarrilaren 1era arteko atzeraeraginarekin, Udalak onar dezan.

Ondorengo dokumentuak atxikitu dira:

- I. eranskina: 2025. urteko modulu ekonomikoak.
- II. eranskina: 2025ean aplikatu beharreko gutxieneko soldata-baldintzak.
- III. eranskina: erantzukizunpeko adierazpena eta modulu ekonomikoen onarpenari buruzko 2025eko adierazpena.

Gipuzkoako Foru Aldundiak proposatutako modulu ekonomiko berriak, gaur egun ditugunekiko bataz besteko % 3,70ko igoera dute 2024koen aldean.

2025eko moduluak onartzeak Beasaingo Udalarekin sinatutako programa-kontratuan sartzea dakar.

OINARRI JURIDIKOAK

- 12/2008 legea, abenduaren 5koa, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa.
- 185/2015 dekretua, urriaren 6koa, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzkoa.

Horren ondorioz, herritarrek batzordeak Udalbatza Osoari ondorengo erabaki proposamena egiten dio,

Lehenik: Gipuzkoako Foru Aldundiarekin sinatutako programa-kontratuaren aldaketa onartzea, 2025eko ekitaldian Loinatz eguneko zentroa finantzatzeko modulu ekonomikoei dagokienez. Hona hemen:

Zerbitzu mota	2024rako tarifa berria €plaza/eguna	2025erako tarifa berria €plaza/eguna
Modulu ekonomiko asistentziala lanegunak	61,37€	63,66€
Lanegunetako garraio zerbitzua	20,39€	21,15€
Modulu ekonomiko asistentziala asteburu eta jai egunak	69,45€	72,00€
Garraio zerbitzua asteburuak eta jai egunak	23,29€	24,14

Bigarren: Alkateari ahalmena ematea III. eranskina sinatzeko: erantzukizunpeko adierazpena eta modulu ekonomikoen onarpenari buruzko 2025eko adierazpena.

Hirugarren: Matia Goxara SLU enpresari eskatzea aplikatu dituzten Gipuzkoako Foru Aldundiak 2025erako ezarritako gutxieneko soldata-baldintzak (II. eranskina) zerbitzuari atxikitako langileei.

Udalak II. eranskin hori aplikatzearen ondoriozko zenbateko ekonomikoa ordainduko dio kontratistari, tokiko erakundearen aurrean aurreko lerrokadan ezarritakoa betetzen dela egiaztatzen duenean.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz bozketa egin da eta aho batez onartu da Herritarrak batzordeak egindako proposamena.

c.- Dirulaguntzak emateko oinarriak:

- 2026KO LOINATZ JAİETARAKO KARTEL LEHIAKETA. 2026OIKU0001

Ezagutzera eman da Herritarrak batzordearen proposamena:

AURREKARIAK:

1.- Urteak dira Beasaingo Udalak Loinatz Jaiak iragartzeko kartel lehiaketa egiten duela.

2.- Bi kartel lehiaketa egiten dira: bat helduentzat, A Taldea, eta beste bat, 7-15 urte bitartekoentzat, B taldea.

3.- A taldeko kartel irabazleak Loinatz Jaiak iragartzen ditu eta Loinatz Jaietako egitarauaren azala izaten da.

B taldeko kartel irabazlea Loinatz Jaietako esku-orriaren barruko aldean eta Beasain Jaietan aldizkarian joaten da, beti ere egitaratzen bada.

4.- A taldeko irabazlea ebazteko, lehiaketak bi fase ditu. Lehenengo fasean epaimahaiak sei kartel aukeratzen ditu, bigarren fasean herritarrek, bozketaren bidez, sei kartel horietatik irabazlea hautatzen dute. Bi bozketen arteko botoen baturak ebatziko du zein den kartel irabazlea; hau da puntuazio gehiena jaso duen kartela.

B taldeko kartel irabazlea epaimahaiak, zuzenean, hautatzen du.

5.- Sariak:

600€ A taldeko kartel irabazlearentzat.*

180€ B taldeko kartel irabazlearentzat.*

**Dagokien PFZAren atxikipena egingo zaie.*

PROPOSAMENA:

Herritarrak batzordeak Osoko Bilkurari ondorengo erabaki proposamena egiten dio:

Lehenik: *2026ko Loinatz Jaietarako kartel lehiaketak egiteko oinarriak onartzea.*

Bigarrenik: *Boletinean gain, ikastetxeei, Euskara eta Kultura azpisailaren bitartez oinarri hauek helaraztea.*

Hirugarren. *Deialdi publikoa egitea Udalaren ohikoak diren hedabideak erabilia.*

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Beraz, aho batez onartu dira 2026ko Loinatz jaietarako kartel lehiaketaren oinarriak (akta honen 1. eranskina).

- 2026AN GAUZATZEKO KULTURA-SORKUNTZA SUSTATZEA. 2026OIKU0002

Ezagutzera eman da Herritarrak batzordearen proposamena:

“AURREKARIAK:

Beasaingo Udalak kultur arloko hainbat esparrutan duen jarrera sustatzailea ez da berria. Horren adibide urtero hitzarmen desberdinak medio aurrera eramaten diren ekitaldiak, emanaldiak, erakusketak etab...

Kultur sorkuntzari dagokionez, Beasaingo Udaleko aurrekontuetan espreski jasotzen diren beka, sari edo bestelako laguntzak hauek dira:

- Matematika argazki lehiaketa-sariak.
- Beasain Idazlehiaketa-sariak (LHko, DBHko eta Batxilergoko ikasleei zuzendua).
- Loinatz jailetako kartel lehiaketa-sariak.
- Beasain Hiria argazki lehiaketa-sariak.
- Igartza Literatur Sorkuntzarako Beka Saria (narratiba lana idazteko proiektua saritzen da, ez lana bera)
- Aire Zabaleko margo sariketa
- Igartza Musika Beka
- Udal egutegia eratzeke argazki lehiaketa

Hala ere, Udalaren nahia da, aipatutakoez gain, kultur sorkuntzaren beste proposamen batzuei laguntzak ematea.

Dirulaguntza horien bidez, aurreko edizioetan, kultur eta sormen alorreko ideia, kezka edota sensibilizazio bereziren bat duten herritarrek, animatu egin dira plano abstraktoan edo teorikoan zuten ideia hori, errealitate bihurtzeko bidea egitera, behar zuten bultzada eskaini zaielako.

2025ean bi eskaera aurkeztu dira. Horietako bat Balorazio Batzordeak bertan behera utzi zuen, proiektua ez zelako dirulaguntzaren oinarrietara egokitzen. Beste eskaerari aldeko ebazpena eman zitzaion arren, proiektua ez da 2025ean gauzatu; beraz, dirulaguntza itzuli beharko da. Proiektua 2026an gauzatzea aurreikusten da, eta herritarrek urte horretarako dirulaguntza eskatu nahi duela adierazi du.

Udalak horrelako ekimenak sustatu nahi ditu, herritarrek kultura-eskaintza handiagoa izan dezaten. Horregatik, egungo laguntza-deialdiarekin, gainera, sorkuntza-lanak plazaratu eta/edo gauzatu nahi dira.

Ondorengoa kontuan hartuta:

LEGERIA APLIKAGARRIA

- Euskadiko toki-erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legea, eta, zehazki, 17,1 20), 26) eta 27), honako gai hauetan Udalari eskumenak ematen dizkietenak:
 - Kultura eta kultur jarduerak antolatzea eta sustatzea eta erabilera publikoko kultura-ekipamenduak kudeatzea.
 - Euskara sustatzeko eta erabiltzeko politikak normalizatzeko, antolatzeke eta kudeatzeko planak, 7. artikuluan xedatutakoari kalterik egin gabe.
 - Genero-berdintasunerako eta ekitatea sustatzeko politikak antolatzea eta kudeatzea.
- Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra eta hura garatzeko erregelamendua, 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartua.
- Diru-laguntzak arautzen dituen Udal Ordenantza (2018/06/14 GAO).
- Beasaingo udaleko dirulaguntzen Plan estrategikoa 2026-2028 (2. Helburu estrategikoa: Udalerriko ekintza kulturalak babestea. 2.2. Diru-laguntza ildoak: Kultur sorkuntza sustatzea).

- 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerakoa.
- 3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarrirakoa.

PROPOSAMENA:

Herritarrak batzordeak Osoko Bilkurari ondorengo erabaki proposamena egiten dio:

Lehenik: 2026an kultura-sorkuntza gauzatzeko dirulaguntzak emateko oinarri arautzaileak onartzea

Bigarrenik: Deialdi publikoa egitea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkia argitaratuta.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Beraz, aho batez onartu dira, 2026an gauzatzeko kultura-sorkuntza sustatzeko oinarriak ([akta honen 2. eranskina](#)).

- ESTIMULAZIO/ERREHABILITAZIO PROGRAMAK EGITEKO LAGUNTZA-OINARRIAK MENDEKOTASUNA EDO DESGAITASUNA DUTEN PERTSONEK. 2026. URTEA. 2026MAEL0001

Ezagutzera eman da Herritarrak batzordearen proposamena:

“Mendekotasuna edo desgaitasuna duten pertsonek estimulazio/errehabilitazio programak egiteko laguntza-oinarriak 2026. urtea.

AURREKARIAK

I.- Gipuzkoako Foru Aldundia arreta goiztiarreko zerbitzua ematen ari garapenean atzerapena edo zailtasunak dituzten 0 eta 6 urte bitarteko adingabeentzat; familia askok estimulazio- edo errehabilitazio-zerbitzu pribatuekin jarraitzen dute, Aldundiak eskainitakoa amaitu ondoren, beren seme-alabek autonomia-maila handiagoa lor dezaten, eta hori gastu handia da familia-ekonomiarentzat.

II.-Espedientean jasota dago Gizarte ongizate azpisaileko arduradun teknikoak egindako txostena.

III.- 0220.480.231.01.01 partidak 10.000 euroko kreditua du esleitura, mendekotasuna edo desgaitasuna duten pertsonek estimulazio/errehabilitazio programak egiteko.

LEGERI APLIKAGARRIA

-2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa. Udalerrien eskumen propioak, 17. Artikulua: Diru-sarreraren bermea eta gizarteratzea antolatzea, programatzea eta kudeatzea.

-Euskal Herriko 1/2007 Legea, otsailaren 22koa, Garapenerako Lankidetzari buruzkoa.

- 1272008 Legea, abenduaren 5koa, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa. 6. artikulua: Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren helburua.

-Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra.

-Uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak onartutako Diru-laguntzen Erregelamendu Orokorra.

-Diru-laguntzak arautzen dituen udal-araua.

-Beasaingo Udalaren Dirulaguntzen Plan Estrategikoa 2026-2028.

PROPOSAMENA

Herritarrak batzordeak Osoko Bilkurari ondorengo erabaki proposamena egiten dio:

Lehenik: Mendekotasuna edo desgaitasuna duten pertsonen estimulazio/errehabilitazio programak egiteko laguntza-oinarriak onartzea.

Bigarren: Alkateari dagokion deialdia egitea, oinarriak argitaratuz.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Beraz, aho batez onartu dira, Mendekotasuna edo desgaitasuna duten pertsonen estimulazio/errehabilitazio programak egiteko laguntza-oinarriak [\(akta honen 3. eranskina\)](#).

- GIZARTE IZAERAKO LAGUNTZEN OINARRI ARAUTZAILEAK. 2026. URTEA. 2026GILE0001

Ezagutzera eman da Herritarrak batzordearen proposamena:

“AURREKARIAK

I.- Udaleko gizarte-zerbitzuek badakite oinarrizko gastuei aurre egiteko nahiko baliabide ekonomikorik ez duten pertsonak daudela, gizarte-babeseko beste sistema batzuek edo eta laguntzak DBE, BGD, GLL, etb. estali ezin dituztenak.

II.- Espedientean jasota dago Gizarte Ongizateko azpisaileko arduradun teknikoaren txostena.

III.- 0220.480.231.03.01 kontusailean 7.500 euroko kreditua kontsignatu da gizarte izaerako laguntzetarako.

LEGERI APLIKAGARRIA

-2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa. Udalerrien eskumen propioak, 17. artikulua: Diru-sarreraren bermea eta gizarteratzea antolatzea, programatzea eta kudeatzea.

- 1272008 Legea, abenduaren 5ekoa, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa. 6. artikulua: Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren helburua.

-Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra.

-Uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak onartutako Diru-laguntzen Erregelamendu Orokorra.

-Diru-laguntzak arautzen dituen udal-araua.

-Beasaingo Udalaren Dirulaguntzen Plan Estrategikoa 2026-2028

PROPOSAMENA

Herritarrak batzordeak Osoko Bilkurari ondorengo erabaki proposamena egiten dio:

Lehenik: Beasaingo udalerrian bizi diren pertsona / familiei gizarte izaerako laguntzak emateko oinarriak onartzea.

Bigarren: Alkateari dagokion deialdia egitea, oinarriak argitaratuz.

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko iritzia hauek azaldu dituzte:

Eva Alvarez Atanes andreak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak): “Nosotros apoyamos estas ayudas, que año tras año aprobamos, porque creemos en su importancia al objeto de

garantizar una mínima calidad de vida a las personas que carecen de recursos para ello y no pueden solicitar otro tipo de ayudas. En la comisión ya planteamos nuestras dudas sobre la ambigüedad con la que se recogen algunos conceptos. En algún caso se dice que es una ayuda prevista para casos puntuales, y aunque se dice que es para unos meses, no se establece un límite temporal. A nuestro entender se recoge de manera muy genérica. En cuanto a considerar beneficiarios de manera excepcional, a quienes pernoctan (una, dos, ...tampoco se indica) en Beasain tampoco se indica qué documentación deben presentar para solicitar la ayuda. A pesar de todo ello, votaremos a favor.”

Alkate andreak (EAJ-PNV): “Nik, benetako indarra pertsona hauen beharretan jarriko nuke. Beharrak zehaztea eta une bakoitzean zer behar den mugatzea oso zaila da. Horregatik nolabaiteko orokortasuna. Oinarriak 2026rako dira eta herritar batentzat/batzuentzat behar horiek errepikatzen badira, laguntzak jasoko lituzkete. Ongizate saileko teknikariek dakite beste dirulaguntzarik jasotzen edo aukerarik duten edo ez. Laguntzak beranduago etortzen badira baina benetako beharra balego kuantifikatu egingo litzateke, ongizate sailak informazio hori duelako. Berdin aurreikusten den salbuespenarekin: Gaua hemen pasatzen duten horientzat (bat edo bi...), ez dut uste mugatu behar denik.

Laguntzak beharren arabera emango dira. Udalak diagnostiko bat egingo du familia batek dituen beharrei buruz, eta beti esan ohi den bezala beharrak asetzeko udalak laguntza emango du eta ematen du. Dena definitzen hasten bagara, batzuk kanpoan utziko lirateke.

Nahi dena da beharrak dituzten pertsona horien integrazioa eta osasun gastuak estaltzea, besteak beste.”

Bozketa egin da eta aho batez onartu dira, Beasaingo udalaren gizarte izaerako laguntzen oinarri arautzaileak ([akta honen 4. eranskina](#)).

3.- LURRALDE BATZORDEKO PROPOSAMENAK:

a.- Kontratazioa:

- BEASAINGO PARKEAK, LORATEGIAK, BERDEGUNEAK ETA BIDE-ZUHAIZTIAK MANTENTZEKO, KONTSERBATZEKO ETA HOBETZEKO ZERBITZUA KONTRATATZEA, ETA ZERBITZU HORRETAN PARTE HARTZEA ENPLEGU-ZENTRO BEREZIENTZAT ETA ARAUTUTAKO LANERATZE-ENPRESENTZAT GORDETZEA. PLEGUAK ONARTZEA ETA DEIALDI PUBLIKOA EGITEA.
2025ZEBO0092

Lurralde Batzordeko proposamenaren berri eman da: Aipatutako zerbitzuak kontratatzeko baldintza administratibo eta teknikoak onartzea eta lizitazioa deialdia publikoaren bidez egitea, Europa Elkarteko Aldizkari Ofizialean eta Euskadiko kontrataziorako plataforman iragarkiak argitaratuz, harmonizatua delako.

Lizitazioaren ezaugarri aipagarrienak ondorengoak dira:

- 1.- *Prozedura: irekia publikitatearekin. Lizitazio elektronikoa.*
- 2.- *Izapidetzea: arrunta, baina erregulazio harmonizatuari lotua.*
- 3.- *Lizitazio prezioa: Bi lizitazio mota:*

- *Mantenu eta parke, lorategi eta gunee berdeen eta bide-zuhaitzen kontserbazioa: 372.289,01 €/urteko+ 78.180,6 9€ (BEZ).*
- *Materialen hornidura, lan-bereziak eta hobekuntza-lanetako prezio unitarioak: Baldintza plegu administratiboaren 4. Eranskinean jasotakoak.*

4.- Egikaritze epea: Bost urte kontratua sinatzen denetik zenbatzen hasita. Ez dago luzatzeko aukerarik.
5.- Kaudimen ekonomiko, finantzarioa: Urteko negozio-bolumena, kontratuaren esparruari dagokiona. Azken hiru urteetako ekitaldi oneneko negozio-bolumena izango da; kontuan hartuta enpresaburuak enpresa noiz sortu duen edo jarduerak noiz hasi dituen eta eskaintza noiz aurkeztu duen. Zenbatekoa: 631.481,28 € gutxienez.

6.- Kaudimen tekniko: Azken hiru urteetan emandako zerbitzuen zerrenda. Zerbitzu-arduradunaren identifikazioa, ondorengo titulazioa duena: basogintza edo nekazaritzarekin, biologiarekin, lorezaintzarekin edo paisaiarekin zer ikusia duena.

Klasifikazioa O taldea, 6 azpitaldea, 5 kategoria.

7.- Aurkezteko epea eta lekua: 30 egun natural, iragarkia Europako Elkartearen Aldizkari Ofizialera bidaltzen denetik kontatzen hasita.

8.- Adjudikazio irizpideak:

Formula automatikoen bidez baloratzen ez diren irizpideak (45 puntu): Memoria teknikoa.

Formula automatikoen bidez puntuatzeko irizpideak. (55 puntu):

- Eskaintza ekonomikoa: Urteko eskaintza ekonomikoa: 45 puntu, Prezio unitarioak: 10 puntu.

9.- Proposamenak irekitzeko lekua, eguna eta ordua: plika irekitzea kontratistatzailearen profilean argitaratzen den tokian, egunean eta orduan egingo da.

10.- Aurkeztu beharreko agiriak: Lizitatzailleek administrazio-baldintzen Pleguan adierazitako agiriak aurkeztu beharko dituzte.

11.- Kontratua gauzatzeko baldintza bereziak:

a) Enpresak bizitza pertsonala, lana eta familia bateratzeko neurriak eskaini beharko dizkie langileei.

b) Enpresak doikuntza pertsonaleko eta sozialeko teknikarien zerbitzuak eskaini beharko dizkie langileei

c) Enpresak lantokian prestakuntza bultzatu beharko du.

d) Kontratazio berriak egin behar badira, lanean emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko neurriak aplikatuko dira.

e) Baldintza plegu teknikoaren 13. artikuluan adierazitako ingurumen-baldintzak.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Bozketa eginda aho batez onartu da Lurralde batzordeko proposamena.

4.- BERRI EMATEA:

- AITOR URDANGARIN IRASTORZA JAUNAK (BEASAINGO EH BILDU) DUEN DEDIKAZIO PARTZIALARI UKO EGITE-AITORPENA AINTZAKOTZAT HARTZEA.
2026IDBO0005

Ezagutzera eman da, Aitor Urdangarin Irastorza Beasaingo EH Bildu udal taldeko den zinegotzi jaunak, 2026-01-22an aurkeztutako idatzia non adierazten duen arrazoi pertsonalak direla eta, 2026ko urtarrilaren 31tik aurrera aitortuta duen liberazioari uko egiten diola.

Osoko Bilkurak aintzakotzat hartu du, Aitor Urdangarin Irastorza jaunak aurkeztutako idatzia eta horren ondorioz, 2024-07-22an Osoko Bilkurak bere alde onartutako dedikazio partziala, 2026ko urtarrilaren 31tik aurrera bertan behera geratuko da.

Alkate andreak hitza eman ondoren, Aitor Urdangarin Irastorza jaunak (Beasaingo EH Bildu) ondorengo adierazi du: "Liberazioari uko egiten diot, nekazaria naizen heinean, hemendik aurrera niretzat bi eginkizunak bateragarriak izango ez direlako proiektu berriak martxan jarri nahi ditudalako. Urtebete pasatxo egin dut liberazioarekin eta saiatu naiz ahalik eta ondoena nire lana egiten. Orain horri uko egin ba diot ere, hemen jarraituko dut."

Ezagutzera eman dira, ondorengo EBAZPENEN zerrenda:

- 2025eko abenduaren 17tik 2026ko urtarrilaren 25era emandako Ebazpenak.
- 2025eko abenduaren 17tik 2026ko urtarrilaren 25era emandako Ebazpenak kontratu txikiei buruz.

5.- ESKAERA ETA GALDERAK

Eskaera eta galderan atalean honelakoak aurkeztu dira:

ETORKINEN ERREGULARIZAZIOA

Aritz Corsitto Agirre jaunak (Elkarrekin Podemos Ezker Anitza / IU-Alianza Verde): "Atzo bozeramaile taldean esan nuen bezala, gustatuko litzaidake motz-motz edo nahiko labur testutxo bat irakurtzea:

Aste honetan, urtarrilaren 27an zehazki, Ministroen Kontseiluak etorkinen ezohiko erregularizazio bat onartu du, Espainiako gobernuaren eta Podemos parlamentu taldearen arteko akordioaren ondorioz.

Azken horrek modu erabakigarrian geratu du ekimen hau. Neurri honek, erakunde sozial, etorkinen kolektibo, sindikatu eta giza-eskubideen aldeko erakundeen eskaera historiko bati erantzuten dio eta funtsezko urratsa da eskubideak bermatzeko eta bazterketa administratibo luzeko egoerei amaiera emateko.

Udalak, herritarrengandik gertuen dauden administrazioak izanik, funtsezko eginkizuna dute harreran, integrazioan eta kohesio sozialean.

Tokiko erakundeek bertatik bertara ezagutzen dute etorkinen errealitatea, eta beren eskumenen esparruan, modu erabakigarrian lagun dezakete haien inklusioa eta erakundeen aldetik laguntza eta babesa errazten.

Ezohiko erregularizazioak aukera ematen du Udalerri bidezkoago, berdintzaleago eta inklusiboagoak lortzeko eta eragin garrantzitsua du, eskubideen, berdintasunaren eta bizikidetzaren aldetik.

Eragin zuzena izango du Beasainen ere, aniztasun sozialagatik eta jatorri ezberdinetako pertsonen parte hartze aktiboagatik nabarmena den udalerrian.

Horregatik guztiagatik, Beasaingo udalak aurreikuspen eta prestakuntzari dagokionez, jarrera aktiboa hartzea eskertuko genuke etorkinen ezohiko erregularizazioak herritarren bizitzan, benetako eta aldeko eragina izan dezan bermatzeko."

Alkatea andreak (EAJ-PNV): "Balio dezala horrelako neurri batek, ze orain arte, etorkinek bide luze eta jasangaitza jasan behar izan dute. Beraien bidea legeztatzeko nolabait ere izan dadila neurri hau benetan probetxugarria eta bueno ba gure sisteman sartu ditzagun behar den moduan. Askotan, zaintza zerbitzuetan azpi ekonomian lan egiten duten horiek ere Gizarte Segurantzara ekarri eta beraien baldintza duinagoak izan daitezen gure herrian bizitzeko."

1.- ERANSKINA

"2026KO LOINATZ JAIETAKO KARTELA ETA IKASTETXEEN ARTEKO 2026KO LOINATZ JAIETAKO KARTELA AUKERATZEKO LEHIAKETA

ZIOEN AZALPENEA

Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legeak, 17,1 artikuluan, udalerriaren berezko eskumen gisa aurreikusten ditu:

20) Kultura eta kultura-jarduerak antolatzea eta sustatzea, eta erabilera publikoko kultura-ekipamenduak kudeatzea

Beasaingo herriak herriko jaiak ospatzen ditu Berpizkunde Igandea baino berrogei egun geroago. Hori horrela, Beasaingo Udalak urtero lehiaketa antolatzen du **Loinatz jaietarako** kartela aukeratzeko eta **adin txikikoen jaietako kartela** aukeratzeko.

2025erako onartutako oinarrien eta egindako deialdiaren ondoren, ondorengoa somatu da:

- Herritarrek, bertakoek zein beste toki batzuetakoek, udal-ekimen honetan parte hartzeko duten interesa.
- Bozketak eta kartel irabazlearen aukeraketak herritarrengan pizten duten interesa, jaietako egitarauaren azala baita.
- Beasaindarren artean jaien egitarauak duen harrera ona, Beasaingo historiarekin lotura estua baitu.

Jendearen partehartzea ona izan zen; izan ere, aurkeztutako kartel kopurua ondorengo izan zen:

- Helduak: 27
- Adin txikikoak: 295

Gainera, helduen kartel irabazlea aukeratzeko, 357 herritarrek parte hartu dute botoa emanez.

Horretarako, dirulaguntzak emateko oinarri hauek prestatu dira, honako hauek kontuan hartuta:

- Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra eta hura garatzen duen erregelamendua, 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartua.
- Dirulaguntzak arautzen dituen Udal Ordenantza (GAO, 2018/06/14).
- Beasaingo Udalaren 2026-2028ko dirulaguntzen plan estrategikoa (2. helburu estrategikoa: udalerriko kultura-jarduera sustatzea. 2.2 ildoak: kultur sorkuntzaren sustapena).

Dirulaguntza hauen bidez, kultura- eta sormen-arloarekiko grina, ideia eta/edo sentsibiltatea duten herritarrak jaietako elementu garrantzitsuenen edo sinbolikoen analisia egitera animatu dira, teknika artistikoak erabiltzera eta emozionalki Beasaingo udalerriarekin lotzera.

Deialdiko eskabideak aurkezteko epea, **2026ko martxoaren 22an amaituko da, 23:59ak baino lehen.**

LEHENENGOA. HELBURUA

Oinarri hauen helburua 2026ko Loinatz Jaiak iragartzeko kartel lehiaketa antolatzea da. Gainera, kartel irabazlea jaietako egitarauaren azala izango da. Aldi berean, 7-15 urte bitartekoentzat eskolen arteko jaietako kartelen beste lehiaketa bat antolatzea, gaztetatik horrelako ekimenekiko interesa eta zaletasuna pizteko.

Epaimahaiak sarituko ditu lanak, honako oinarri hauen arabera.

BIGARRENA. AURREKONTUA

Hurrengo oinarrietan ezarritako laguntzak finantzatzeko aurreikusitako aurrekontua 780,00€-koa da, eta 0240.480.334.20.03 aurrekontu-partidan aurreikusita dago.

HIRUGARRENA. PROZEDURA

Sariak emateko prozedura norgehiagokakoa da, epaimahaiak ebaluatuko dituen eskabideek bat egin dezaten.

LAUGARRENA. PARTEHARTZEKO BALDINTZA OROKORRAK

1.- Kartel-lehiaketako parte-hartzaileak bi taldetan banatuko dira:

- A taldea: 2010 (barne) urtera arte jaiotakoak.
- B taldea: Herriko ikastetxeak. 2011-2019 (biak barne) urte bitartekoetan jaiotakoak.

2.- Edozein kolore edo eratako lanak onartuko dira: argazkia, collagea, pintura, eta abar. Lanen neurriak honako hauek izan behar dute: 42 x 60 cm. edo horren proportzioko tamaina. **Formatuak, nahitaez, bertikala izan behar du.**

3.- A eta B Karteletan derrigorrean **“2026ko LOINATZ JAIK” maiatzaren 15etik 24ra** esaldia azaldu beharko da idatzita, norberak egokien ikusten duen moduan.

4.- Lanak egilea nor den adieraz dezakeen inolako daturik agertu gabe aurkeztuko dira. Lanarekin batera, testu fitxategi batean hartzailearen datu pertsonalak eta NAN dokumentuaren kopia atxikita egon beharko da.

5.- Ikastetxeen kasuan, erantsitako fitxategiak egileen izena eta IFK eta ikastetxearen izen osoa jasoko ditu.

6.- Lanak inoiz argitaratu gabeak izan behar dute eta ezingo dute aldarrikapen politikorik edo sexistarik izan, ezta estereotipo sexistekin ala alkoholaren edo drogen kontsumoarekin zerikusirik duen mezurik, irudirik edo bestelako elementurik.

Honako hauek ezin izango dira sari hauen onuradun izan:

- Lege honetako 2. artikuluan aurreikusitako egoeraren batean dauden pertsonak edo erakundeak. Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13.2 artikulua (2003ko azaroaren 18ko BOE).
- Beasaingo Udalarekin hartutako zorrak premiamendu bidez kobratzeko prozeduretan sartuta dauden partikularrak edo erakundeak, ezta Udalarekiko zerga-betebeharrak egunean ez dituztenak ere, harik eta zor horiek benetan ordaindu eta kitatu edo bete arte, salbu eta zor horiek geroratuta, zatikatuta edo betearazpena etenda dagoenean.
- Zigor- edo administrazio-arloan dirulaguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzearekin zigortuak izan direnak, edo horretarako ezgaitzen dituen legezko debekuren baten eraginpean daudenak, Emakumeen eta Gizonen

Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera sexu-bereizkeriagatik gertatutakoak barne.

Dokumentazio elkarreragilea eta egiaztagarria.

- Urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 28. artikuluan aitortzen du herritarrek eskubidea dutela dagoeneko administrazio jardulearen esku dauden edo beste edozein administraziok egin dituen dokumentuak ez aurkezteko; horrela, administrazio jarduleak dokumentu horiek kontsultatu edo eskatu ahal izango ditu, salbu eta interesdunak horren aurka egiten badu. Administrazio publikoek elektronikoki bildu behar dituzte dokumentuak, beren sare korporatiboen bidez edo datuen bitartekaritza-plataformei edo horretarako gaitutako beste sistema batzuei kontsulta eginez.
- Beasaingo Udala Euskadi Nisae-ko administrazioen elkarreragingarritasun- eta segurtasun-korapiloaren parte da. Plataforma hori komuna da euskal sektore publikoko administrazio eta erakunde guztientzat, eta datu elektronikoen trukea haien artean eta gainerako administrazioekin ezartzeko nodo autonomiko gisa. Horrez gain, Beasaingo Udalak foru sare korporatiboko aplikazioak edo dokumentuak egiaztatze eta lortze aukera ematen duten beste sistema batzuk erabiliko ditu.
- Deialdi honetan, plataforma korporatiboen, bitartekaritza-plataformen (Nisae) edo sarbide publikoko plataformen bidez egiaztatuko diren betekizunak honako hauek izango dira:

a) Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean izatea.

b) Egunean izatea zerga-betebeharrak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun Departamentuarekin egiaztatuko direnak.

Saritutako norbanakoak edo hezkuntza-erakundeak egiaztapen horren aurka azaltzen bada, edo Udalarekin zerikusirik ez duten arrazoiengatik ezin bada informazioa adierazitako moduan lortu, berak aurkeztu beharko du dokumentazioa.

Aurkeztutako dokumentazioa osatu gabe badago, gehienez hamar eguneko epea dago huts horiek zuzentzeko edo nahitaezko dokumentazioa ekartzeko, udalak egindako errekerimendua jakinarazi eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Horrela egin ezean, eskaria atzera botako da.

Emandako epea igaro eta akatsak zuzendu ez badira, diru-laguntzarako eskabidean atzera egin dela ulertuko da, eta beste izapiderik gabe artxibatuko da eskaera.

BOSGARRENA. OINARRIAK ARGITARATZEA

Oinarri hauek BDNSra bidaliko dira Udaleko osoko bilkurak onartu ondoren, eta ondoren GAOn argitaratuko dira.

Gainera, oinarriak eta deialdia Udalaren webgunean (www.beasain.eus) eta sare sozialetan argitaratuko dira

Zalantzak edo kontsultak Euskara eta Kultura azpiarloan argituko dira.

SEIGARRENA. AURKEZTEKO MODUA

A Taldea:

Derrigorrez lanaren bertsio digitala (JPG formatuan) aurkeztu beharko dute, nahiz eta bertsio fisikoan aurkezteko aukera ere izan.

Lanak aurkezteko bideak hauek dira:

- Bertsio digitalean: Posta elektronikoz kultura@beasain.eus helbidera bidali edo Herriarrentzako Informazio Gunean (IGunean) aurkeztu USB batean.

- Bertsio fisikoan: Herriarrentzako Informazio Gunean.

B Taldea:

Lanak Beasaingo Udaleko Kultura azpisailean utziko dira.

Lanak, bi taldekoak, **2026ko martxoaren 22ko gaueko 23:59ak baino lehen** aurkeztu beharko dira.

ZAZPIGARRENA. EPAIMAHAIAREN OSAERA

Epaimahaia parekidea izango da eta, A eta B taldeko lanak epaituko ditu. Kideak ondorengoak izango dira:

- Mahaiburua: Herriarren saileko zinegotzia.
- Bokalak: Beasaingo Udaleko komunikazio teknikaria, artista bat edo Urbieta Arte Plastikoak Zentroko ordezkari bat eta berdintasun arloko ordezkari bat.
- Idazkaria: Kultura azpisaileko udal langile bat, hitza bai baina botorik gabe.

Beraien erabakia eztaba daezina izango da.

ZORTZIGARRENA. BALORAZIO IRIZPIDEAK

- Loinatz jaiekin edota Beasaingo jaietako ohiturekin lotura izatea
- Lehiaketaren helburuarekin lotura izatea (jaiak iragartzea)
- Sormena
- Teknika
- Ideia berriak

BEDERATZIGARRENA. KARTEL IRABAZLEAK AUKERATZEKO PROZEDURA

A taldea:

Bi modu egongo dira, internet bidez eta aurrez aurre bozka emanez.

Aukeratzeko prozedurak bi fase izango ditu:

1. Fasea: Epaimahaiak bigarren fasera pasako diren lanak aukeratuko ditu.

2. Fasea: "Bozken" fasea izenekoan, gehienez, 100 puntu emango dira, honela banatuta:

- Epaimahaiaren bozkak: 50 puntu
- Herriarren bozkak: 50 puntu, papereko bozka izan edota udalaren web atari bidezkoa izan.

Epaimahaiak **2026ko apirilaren bigarren hamabostaldian** emango du irabazlearen izena.

EPAIMAHAIAREN BOZKETA: (50 puntu). Epaimahaikide bakoitzak 12,5 puntu izango ditu, egoki irizten dion moduan banatzeko bigarren fasera pasatu diren edozein lanen artean.

Epaimahaiak hartutako erabakia horrexetarako idatziko den aktan jasoko da, lan bakoitzak lortutako puntuak jasoz.

HERRITARREN BOZKETA (50 puntu). Lan bakoitzak zenbaki bat eramango du eta bozkatu ahal izango da **martxoaren 27tik apirilaren 12ra bitarte arte**, udal web atarian, www.beasain.eus helbidean agertuko den estekaren bitartez. Herritarrak aurrez aurreko aukeraz baliatu nahiko balu, udaletxera etorri beharko du botoa ematera. Udaletxeko sarrera nagusian buzoia eta botoa emateko fitxa batzuk egongo dira.

Herritarrek bigarren fasera pasatu diren lan horietako bat aukeratuko dute.

Adierazitako bi modu horietako edozeinetan, udalerrian erroldatutako pertsonak bakarrik bozkatu ahal izango dute, baldin eta NANA edo baliokidea agertzen bada, betiere formularioan eskatuko diren baldintzen arabera.

HERRITARREN BOZKETAREN EMAITZA. Jasotako botoak zenbatu egingo dira eta kartel bakoitzak lortutako kopuruari dagokion proportzioan banatuko dira 50 puntuak. Ondoren, horretarako idatziko den aktan jasoko dira eta bertan azalduko dira obra edo lan bakoitzak lortu dituen puntuak.

PUNTU GUZTIAK BATZEA. Bi aktak eskura direnean, bigarren fasera pasatutako lanek lortu dituzten puntuak zenbatuko dituzte, eta irabazletzat aitortuko da puntu gehien lortu duena. Berdinketarik izanez gero, epaimahaiko lehendakariaren kalitatezko botoak ebatziko du.

B taldea:

Epaimahaiak **2026ko apirilaren bigarren hamabostaldian** emango du erabakia eta apelaezina izango da.

HAMARGARRENA. SARIAK, LEHIAKETAREN EBAZPENA ETA SARI BANAKETA

Sariak hauek izango dira:

-A taldeko irabazleari: 600* €

-B taldeko irabazleari: 180* €

*Sariei indarreko PFEZren kenketa egingo zaie

Saria eman gabe gera daiteke epaimahaiaren iritziz aurkeztutako lanek gutxieneko kalitate-mailarik ez badute.

A taldeko irabazlearen lana **2026ko Loinatz Jaien kartela eta jaietako programaren azala izango da.**

B taldeko irabazlearen kartela jaietako programan joango da.

Horrez gain, epaimahaiak aukeratuko dituen 10 kartel finalistak 2026ko Beasain Jaietan aldizkarian argitaratuko dira, hori argitaratuko balitz.

Sariak jaietako egitaraua eta kartel irabazleak aurkezteko egingo den prentsaurrekoan banatuko dira.

Alkateak sariak emateko Ebazpena emango du bi taldetako irabazleei jakinarazteko. Ikastetxe irabazleak ikasle irabazleari jakinaraziko dio sariak banatu aurretik (talde baten lana izan daiteke ere).

Epaimahaiaren erabakia Beasaingo Udalaren web orrian argitaratuko da, gainontzeko partehartzaileak eta publiko orokorra jakinaren gainean egon daitezen.

Kartel irabazleak ezagutzera emango dira 2026ko jaietako egitaraua aurkeztuko den prentsaurrekoan.

HAMAIKAGARRENA. KARTELAK ERABILTZEKO BAIMENA

Beasaingo Udalak, argazkiak erreproduzitzeko, banatzeko eta jakinarazpen publikoan erabiltzeko eskubidea izango du. Egileak, eskubide horiek uztearen truke, inoiz ezingo du lehiaketako sariaz gain beste ordainsaririk eskatu.

Udalak aurkeztutako lanak zainduko ditu baina lanen osotasunaren eta egoera onaren erantzukizunik ez du izango, batez ere euskarri gogorrean aurkeztu ez diren lanena.

Loinatz jaietako antolatzaileek aurkeztutako karteekin erakusketa bat antolatu ahal izango dute jaien barruan.

Horregatik saritu gabeko lanak, **ekainaren 1tik** zenbatzen hasita, hogeiei eguneko epean jaso ahal izango dira lanak aurkeztutako leku berean. Aipatutako epea lanak jaso gabe igaroz gero, egileak galdutzat eman dituela pentsatuko du Udalak, eta, ondorioz, inolako eskubide eta kalte-ordainik aitortu gabe, egoki irizten dion moduan bereganatuko ditu.

HAMABIGARRENA. DATU PERTSONALEN BABESA ETA IRUDI-ESKUBIDEAK

Datu pertsonalak, Datu Pertsonalak Babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan xedatutakoa kontuan izanik arabera tratatuko dira.

Datu pertsonalak tratatzeko legitimazioa interesdunaren berariazko baimenean eta lehiaketaren oinarri arautzaileen onarpenean oinarritzen da (DBEOaren 6.1.a). Halaber, adostasuna kendu ahal izango da, aldez aurretik egindako tratamenduen zilegitasunari eragin gabe.

Parte-hartzaileek beren informazio pertsonalaren egiazkotasuna, zehaztasuna, indarraldia eta benetakotasuna bermatu eta erantzuten dute, eta 3/2018 Lege Organikoak eskatzen duen berariazko baimena lortu izana, aurkeztutako obren irudietan agertzen diren pertsonen dagokienez.

Halaber, parte-hartzaileek bermatzen dute 1/1982 Lege Organikoaren, maiatzaren 5ekoa, ohorerako, norberaren eta familiaren intimitaterako eta norberaren irudirako eskubidearen babes zibilar buruzkoa, eskakizunak betetzen dituztela, eta beren obretan hirugarrenen irudia erabiltzeko legezko baimena eta/edo gaikuntza dutela.

Datuak lehiaketa kudeatzeko beharrezkoak diren bitartean gordeko dira, eta, amaitu ondoren, legeek edo nahitaez bete beharreko arauak ezarritako betebeharrak eta erantzukizunak betetzeko lege ezarritako epeetan, edo agintaritzaren eskudunak, zuzenbidearen arabera, hala eskatzen duenean.

Tratatzen ditugun datuak beharrezkoak dira lehiaketa kudeatzeko, lehiakideekin harremanetan jartzeko eta saria emateko. Ez da erabaki automatizaturik hartuko datuetan oinarrituta, eta ez dira erabiliko pertsonaren profila egiteko.

Datu pertsonalak ez dira hirugarrenei komunikatuko, ezta hirugarren herrialdeei edo nazioarteko erakundeei transferituko ere.

Tratamenduaren arduraduna Beasaingo Udala da. Datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, mugatzeko edo horien aurka egiteko eskubideak baliatu ahal izango dira Beasaingo Udalarik idatzizko eta sinatutako eskaera bat bidaliz honako posta-helbide honetan: Loinazko San Martin Plaza, 1, 20200 – Beasain (udala@beasain.eus). Halaber, kontrol-agintaritzan erreklamazioa jartzeko eskubidea dago (<http://www.avpd.euskadi.eus>).

HAMABIHIRUGARRENA. APLIKATU BEHARREKO ARAUDIA.

Deialdi honetan aurreikusita ez dagoen guztirako, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea aplikatuko da.

HAMALAU GARRENA. EBAZPENA ETA ERREKURTSOAK.

Udalak ahalmena du oinarri hauek interpretatu eta aplikatzeko edukiari buruz edozein desadostasun sortuko balitz.

Honako oinarri hauen aurka berraztertze errekurtsoa aurkez daiteke, hilabeteko epean, deialdia onartu duen organo eskudunaren aurrean; bestela, zuzenean kontra egin daiteke bi hilabeteren buruan Administrazioarekiko Auzi Epaitegiaren aurrean.

Aipatu epeak oinarri hauek argitaratu eta hurrengo egunetik hasiko dira zenbatzen bi kasuetan.”

[Itzuli dagokion puntura](#)

2. ERANSKINA

“2026AN KULTURA-SORKUNTZAK SUSTATZEKO ETA GAUZATZEKO DIRULAGUNTZAK EMATEKO OINARRI ARAUTZAILEAK

1. AURREKARIAK

Beasaingo Udalak kultur arloko hainbat esparrutan duen jarrera sustatzailea ez da berria. Horren adibide urtero hitzarmen desberdinak medio aurrera eramaten diren ekitaldiak, emanaldiak, erakusketak etab...

Kultur sorkuntzari dagokionez, Beasaingo Udaleko aurrekontuetan espreski jasotzen diren beka, sari edo bestelako laguntzak hauek dira:

- Matematika argazki lehiaketa-sariak.
- Beasain Idazlehiaketa-sariak (LHko, DBHko eta Batxilergoko ikasleei zuzendua).
- Loinatz jaietako kartel lehiaketa-sariak.
- Beasain Hiria argazki lehiaketa-sariak.
- Igartza Literatur Sorkuntzarako Beka Saria (narratiba lana idazteko proiektua saritzen da, ez lana bera)
- Aire Zabaleko margo sariketa
- Igartza Musika Beka
- Udal egutegia eratzeko argazki lehiaketa

Hala ere, udalaren nahia da kultur sorkuntzaren beste proposamen batzuei laguntzak ematea. Horregatik, 2026ko aurrekontuan, horretarako partida bat aurreikusi da.

Horregatik, kultura-sorkuntzak sustatzeko eta sorkuntza horiek gauzatuz kultura-sektorea bultzatzeko, oinarri hauek prestatu dira, honako hauek kontuan hartuta:

- Euskadiko toki-erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legea, eta, zehazki, 17,1 20), 26) eta 27), honako gai hauetan Udalari eskumenak ematen dizkietenak:
 - Kultura eta kultur jarduerak antolatzea eta sustatzea eta erabilera publikoko kultura-ekipamenduak kudeatzea.
 - Euskara sustatzeko eta erabiltzeko politikak normalizatzeko, antolatze eta kudeatzeko planak, 7. artikuluan xedatutakoari kalterik egin gabe.

- Genero-berdintasunerako eta ekitatea sustatzeko politikak antolatzea eta kudeatzea.
- Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra eta hura garatzeko erregelamendua, 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartua.
- Diru-laguntzak arautzen dituen Udal Ordenantza (2018/06/14 GAO).
- 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik Gabeko Bizitzetarako Legea.
- 3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarriakoa.
- Beasaingo udaleko dirulaguntzen Plan estrategikoa 2026-2028 (2. Helburu estrategikoa: Udalerriko ekintza kulturalak babestea. 2.2. Diru-laguntza ildoak: Kultur sorkuntza sustatzea).

Dirulaguntza horien bidez, aurreko ediziotan, kultur eta sormen alorreko ideia, kezka edota sensibilizazio bereziren bat duten herritarrek, animatu egin dira plano abstraktoan edo teorikoan zuten ideia hori, errealitate bihurtzeko bidea egitera, behar zuten bultzada eskaini zaielako.

2025ean bi eskaera aurkeztu dira. Horietako bat Balorazio Batzordeak bertan behera utzi zuen, proiektua ez zelako dirulaguntzaren oinarrietara egokitzen. Beste eskaerari aldeko ebazpena eman zitzaion arren, proiektua ez da 2025ean gauzatu; beraz, dirulaguntza itzuli beharko da. Proiektua 2026an gauzatzea aurreikusten da, eta herritarrek urte horretarako dirulaguntza eskatu nahi duela adierazi du.

Udalak horrelako ekimenak sustatu nahi ditu, herritarrek kultura-eskaintza handiagoa izan dezaten. Horregatik, egungo laguntza-deialdiarekin, gainera, sorkuntza-lanak plazaratu eta/edo gauzatu nahi dira.

2. XEDEA

Oinarri hauen xedea Beasaingo herritarrei, 2026an, kultur sorkuntzako proiektuak garatzeko eta gauzatzeko dirulaguntzak eskatzeko eta emateko prozedura-baldintzak arautzea da.

3. DIRUZ LAGUN DAITEZKEEN PROIEKTUAK / JARDUERAK

Diruz laguntzeko modukotzat joko dira honako proiektu-mota hauek, betiere euskararen presentzia modu batera edo bestera bermatzen bada:

1. **Obra sortzea, ondoren antzezpena egiteko:** edozein motatako testu eszenikoen dramaturgia irudikatzea, dantza-koreografiaren diseinua oholtzara eramatea, txotxongiloen lanak taularatzea (testuak eta pertsonaiak sortzea).
2. **Obra bisualak eta plastikoak sortzea,** honako disziplina hauek barne hartzen dituztenak: eskultura, forja, bustigintza, urregintza, grabatua, ilustrazioa, pintura, marrazketa, muralak eta grafitiak, artisautza eta oihaigintza. Lanak egin behar dira dirulaguntza jaso ahal izateko.
3. **Ikus-entzunezko lanak sortzea eta maketatzea:** ikus-entzunezko proiektu artistikoen gidoiak idaztea (publizitatekoak edo sustapenekoak ez direnak), edozein formaturako, eta pieza artistikoak filmatzea eta editatzea.
4. **Musika edo soinu-konposizioa sortzea, grabatzea edo/ eta editatzea:** partiturak idaztea, edozein motatako musika lanak sortzea, pieza artistikoak grabatzea edo/ eta editatzea.

5. **Ekintzailetza edo ikerkuntza proiektuak:** aurreko modalitateetako batean sartzen ez diren proiektuak **gauzatzea**, kultura sektorearen baitan garatzen direnak, ingurune digitalari, medio berriei eta arte digitalari lotutako proiektuak lehenetsiz.
6. **Haur eta nerabe literatura helburu duten proiektuak sortzea eta argitaratzea:** haur zein nerabeentzat sorturiko ipuin edo kontakizunak. Arte plastiko eta bisualekin lotutako publikazioak barne. Dirulaguntza jasotzeko, lanak argitaratu behar dira.
7. **Helduentzako literatura-proiektuak:** poesiaren, eleberraren, komikiaren edo kontakizun laburren esparruan obrak sortzea. Arte plastiko eta bisualekin lotutako publikazioak ere sartzen dira. Dirulaguntza jasotzeko lanak argitaratu behar dira.

4. DIRUZ LAGUN EZIN DAITEZKEEN PROIEKTUAK / JARDUERAK

"Onarpen eta Balorazio Batzordeak" eskumena izango du, kasuz kasu eta aldez aurretik justifikatuta, diru-laguntzen eskaeretakoa bat baztertzeko, baldin eta:

- Proiektu bat ez bada, erabat amaitutako obra bat baizik.
 - Ez badira sorkuntza propioko proiektuak, baizik eta lehendik dauden lanen egokitzapenak edo itzulpenak.
 - Genero-identitatea eta haren edukia diskriminatzen dituzten proiektuak badira, pertsonen eskubideak eta askatasunak urratzea ekar dezaketenak.
 - Kirol-jarduerak edo irakaskuntza-programei lotutakoak badira.
-
- Euskararen erabilpena sustatzeko eta normaltzeko udal-ordenantza betetzen ez duten proiektuak badira.

5. ONURADUNAK

Laguntza hauek pertsona fisikoentzat dira, baldin eta:

1. 18 urtetik gorakoak badira.
2. Azken bi urteetan etengabe Beasainen erroldatuta badaude, erreferentzia gisa 2024/03/01 hartuta.
3. Kultura-arloan proiektuak edo jarduerak garatzen dituztenak edo hasi nahi dutenak badira.

Interesdunek gehienez ere 3. Oinarrian adierazitako diruz lagun daitezkeen proiektuetako birentzat aurkeztu ahal izango dute laguntza-eskaera. DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN PROIEKTUAK/JARDUERAK

Eskatzaile berak diruz lagundu daitezkeen proiektu bat baino gehiago aurkezten badu, proiektu bakar baterako bakarrik emango da laguntza. Hori, puntu gehien lortzen dituen izango da, 10. puntuan ezarritako balorazio-irizpideen arabera.

5. FINANTZAZIOA

Oinarri hauetan aurreikusten diren laguntzaren zenbatekoa 15.000,00€koa da, eta honako aurrekontu-partida honen kargura finantzatzeko da: 0240.481.330.00.23 sorkuntzarako dirulaguntza.

Gehieneko zenbateko osoaz gain (15.000€) aurkeztutako eskabideak ikusita, zenbateko gehigarri bat onartu ahal izango da, dagokion aurrekontu-aldaketa onartu ondoren, dirulaguntza emateko ebazpena eman baino lehen.

6. ESKABIDEAK AURKEZTEA

Organo eskudunak onartu ondoren, oinarriak DNBr bidaliko dira eta GAO on argitaratu ondoren, eskabideak aurkezteko epeari hasiera emango zaio, eta **2026ko irailaren 30ean** amaituko da.

-Modua:

Eskabidea oinarri hauetako 1. eranskinean jasotako ereduaren arabera aurkeztu beharko da, eta hurrengo puntuan adierazten diren agiriekin batera aurkeztuko da. Eskabideak honela aurkeztuko dira:

- Nagusiki, Beasaingo Udaren erregistro elektronikoaren bidez: <http://www.beasain.eus/es/bulego-birtuala>
- Posta zerbitzuaren bidez.
- Aurrez aurre, Igunean (Informazio bulegoan).

Eskaera erregistro elektronikoaren bidez aurkeztu ez bada, eskaerarekin doan dokumentazioa paperean eta euskarri digitalean aurkeztuko da.

6. AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

Eskaera-orriarekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa:

- Diruz laguntzea eskatzen den proiektuaren gaineko azalpen txostena, 10. BALORAZIO-IRIZPIDEAK puntuan adierazten diren balorazio-irizpideak nola landuko diren azalduko duena:
 - Proiektua letra-estilo eta neurria hauetako batez idatzia izango da: Garamond 12pt, Times New Roman 12pt, Courier 12 pt edo Arial 12 pt.
 - Gehienez, 5 orri izango dira bi aldetatik eta 10 orri alde bakar batetik.
- Proiektuaren gastuen eta diru-sarreraren aurrekontu xehatua; diru-sarreraren atalean, eskatutako laguntzaren zenbatekoa adierazi beharko da.
- Beste diru-sarrerak dauden edo/eta beste erakunde batzuetan diru-laguntza eskatu duen adierazten duen zinpeko adierazpena.

Eskabidean edo harekin batera doan nahitaezko dokumentazioan akatsen bat badago edo osatu gabe dagoela balioesten bada, hamar eguneko epea emango zaie interesdunei hautemandako akatsak zuzentzeko, Udalak egindako errekerimendua jakinarazi eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita.

Emandako epea igaro eta akatsak zuzendu ez badira, diru-laguntzarako eskabidean atzera egin dela ulertuko da, eta beste izapiderik gabe prozedura artxibatuko da.

Aukeratu gabeko proposamenak itzuli egingo dira, eta egileek edo horien ordezkariak jaso ahal izango dituzte, horrela eskatuz gero, behin betiko ebazpena eman ondorengo hiru asteetan. Horrela egin ezean baztertu egingo dira eta Beasaingo Udala ez da arduratuko itzultzean galtzen diren lanez edota kopiez.

7. DIRU-LAGUNTZA EMATEKO PROZEDURA

Laguntza hauek 10. BALORAZIO-IRIZPIDEAK puntuan azaldutako balorazio-irizpideak kontuan hartuta emango dira.

Euskara eta Kultura arloari dagokio oinarri hauetan aldeztu aurreko laguntzak kudeatzea. Onarpen eta Balorazio Batzordeko Teknikariak arduratuko dira aurkeztutako eskabideak aztertzeaz eta ebaluatzeaz ondorengo oinarrian adierazitako balorazio-irizpideak kontuan hartuta.

Laguntzak emateko edo ukatzeko, Alkatetzaren ebazpena emango da, eta ebazpen hori diru-laguntza eskatzen duenari jakinaraziko zaio.

Honako hauek ezin izango dira sari hauen onuradun izan:

- Lege honetako 2. artikuluan aurreikusitako egoeraren batean dauden pertsonak edo erakundeak. Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13.2 artikulua (2003ko azaroaren 18ko BOE).
- Beasaingo Udalarekin hartutako zorrak premiamendu bidez kobratzeko prozeduretan sartuta dauden partikularrak edo erakundeak, ezta Udalarekiko zerga-betebeharrak egunean ez dituztenak ere, harik eta zor horiek benetan ordaindu eta kitatu edo bete arte, salbu eta zor horiek geroratuta, zatikatuta edo betearazpena etenda dagoenean.

Zigor- edo administrazio-arloan dirulaguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzearekin zigortuak izan direnak, edo horretarako ezgaitzen dituen legezko debekuren baten eraginpean daudenak, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera sexu-bereizkeriatik gertatutakoak barne

Dokumentazio elkarreragilea eta egiaztagarria.

- Urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 28. artikuluan aitortzen du herritarrek eskubidea dutela dagoeneko administrazio jardulearen esku dauden edo beste edozein administraziok egin dituen dokumentuak ez aurkezteko; horrela, administrazio jarduleak dokumentu horiek kontsultatu edo eskatu ahal izango ditu, salbu eta interesdunak horren aurka egiten badu. Administrazio publikoek elektronikoki bildu behar dituzte dokumentuak, beren sare korporatiboen bidez edo datuen bitartekaritza-plataformei edo horretarako gaitutako beste sistema batzuei kontsulta eginez.
- Beasaingo Udala Euskadi Nisae-ko administrazioen elkarreragingarritasun- eta segurtasun-korapiloaren parte da. Plataforma hori komuna da euskal sektore publikoko administrazio eta erakunde guztientzat, eta datu elektronikoen trukea haien artean eta gainerako administrazioekin ezartzeko nodo autonomiko gisa. Horrez gain, Beasaingo Udalak foru sare korporatiboko aplikazioak edo dokumentuak egiaztatzeko eta lortzeko aukera ematen duten beste sistema batzuk erabiliko ditu.
- Deialdi honetan, plataforma korporatiboen, bitartekaritza-plataformen (Nisae) edo sarbide publikoko plataformen bidez egiaztatuko diren betekizunak honako hauek izango dira:

a) Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean izatea.

b) Egunean izatea zerga-betebeharrak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun Departamentuarekin egiaztatuko direnak.

Erakunde eskatzailea egiaztapen horren aurka badago, berak aurkeztu beharko du dokumentazioa.

Aurkeztutako dokumentazioa osatu gabe badago, gehienez hamar eguneko epea dago huts horiek zuzentzeko edo nahitaezko dokumentazioa ekartzeko, udalak egindako errekerimendua jakinarazi eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Horrela egin ezean, eskaria atzera botako da.

Emandako epea igaro eta akatsak zuzendu ez badira, diru-laguntzarako eskabidean atzera egin dela ulertuko da, eta beste izapiderik gabe artxibatuko da eskaera.

8. BALORAZIO IRIZPIDEAK

Aurkeztutako proiektuak baloratzeko unean erabiliko diren irizpideak honako hauek izango dira:

- Proiektuaren interesgarritasuna, kalitatea eta orijinaltasuna/berrikuntza: 0 - 40 puntu.
- Sortzaileak garaturiko lehen lana izatea: 10 puntu
- Proiektu berean kultur disziplina bat baino gehiago erabiltzea: 0 - 10 puntu
- Beasaingo kultur arloari ekarpena egitea: 0-15 puntu
- Baloratuko da proiektu osoan genero-ikuspegia txertatzea; hau da, bai justifikazioan, bai helburuetan, jardueretan, metodologian eta ebaluazio-adierazleetan ere. Besteak beste, sortutako dokumentazioan, publizitatean, irudian edo materialetan hizkera ez-sexista erabili beharko da. Ezingo dira irudi diskriminatzaileak edo genero-estereotipoak erabili, eta ez dira egingo sexuagatiko diskriminazioa, diskriminazio anizkoitzeko faktoreak edo diskriminazio-egoerak eragin ditzaketen beste edozein faktore sortzen dituzten jarduerak: 0-15 puntu.
- Euskararen normalizazioan eta erabileran lagunduko duten proiektuak (hedapena, sustatpena, ikerketa, berrikuntza...): 0-10 puntu.

Puntuaziorik altuena 100 puntukoa izango da eta laguntza jaso ahal izateko, gutxienez, 50 puntu lortu beharko dira.

9. ONARPEN ETA BALORAZIO BATZORDEA

Onarpen eta Balorazio Batzordea, Herritar sailekoak diren Kultura eta Euskara koordinatzaileak, Kultura eta Euskara teknikariak eta Gaztedia eta Berdintasun teknikariak osatuko dute.

Batzorde horrek, egoki iritziz gero, dagokion diziplinako adituen iritzia eskatuko du.

Batzorde honen zereginak honako hauek izango dira, besteak beste:

- Aurkeztutako eskaerak onartzea.
- Onartutako proiektuak aztertzea eta baloratzea.
- Diru-laguntzen kudeaketa eta lanak burutzea.

10. DIRU-LAGUNTZAREN ORDAINKETA

Dirulaguntza deialdi honetarako gehieneko kreditu erabilgarria 15.000 €-koa izango da.

Aurkeztutako aurrekontuaren %75a lagunduko da eta, gehienez ere, 3.000 €ko laguntza jasoko du proiektu bakoitzak, beti ere gainfinantziaziarik ez badago.

Eman beharreko dirulaguntzen ebazpena alkatetzaren eskumena izango da, Onarpen eta Balorazio batzordeak igorritako txostena kontuan hartuta.

Jaso ahala ebatziko dira dirulaguntzak, eskaera jaso eta bi hilabeteko epean, gutxi gorabehera.

Programa honen kontura emandako dirulaguntzak bi zatitan ordainduko dira: %50 dirulaguntza emateko ebazpena onartzen denean, eta gainerakoa ekimena justifikatzeko dokumentazioa aurkezten denean.

Emandako diru-laguntza, bankuko transferentzia bitartez ordainduko da pertsona onuradunak adierazitako kontu korrontean.

11. JUSTIFIKATZEKO EPEA ETA MODUAK

Gastuen justifikazioa **2027ko otsailaren 28a baino lehen** egingo da, eta honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

- Dirulaguntzaren xede den proiektua gauzatu dela egiaztatzen duen dokumentazioa.
- Partzialki diruz lagundutako proiektuaren finantzaketaren izaera publikoa behar bezala adierazi eta hedatzea Beasaingo Udaren armaria erabiliz. (karteletan, inprimatutako materialetan eta digitalki argitaratutakoetan...)
- Diru-sarreraren eta gastuen balantze ekonomikoa.
- Egindako gastuen zerrrenda eta horien egiaztapenak: faktura* originalak

* 2026an gauzatuko den proiektua garatzeko beharrezkoak diren gastuen ordainketa aurreratuei dagozkien 2025eko data duten fakturak onartuko dira. Gastu horiek proiektuan berariaz adierazi beharko dira ordainketa aurreratu gisa, eta Balorazio eta Onarpen batzordeak izango du horiek onartzeko ahalmena. Era berean, 2027ko urtarrilaren 15a arteko data duten fakturak ere onartuko dira, betiere dagokien gastua 2026an benetan egin bada.

- Diruz lagundutako proiekturako beste diru-sarrera eta/edo dirulaguntza batzuk dauden ala ez egiaztatzen duen zinpeko aitortpena.

Udalari aurkezten zaizkion justifikazioetan egiaztatzen bada diruz lagundutako proiektuaren azken kostua onartutako aurrekontua baino txikiagoa dela, dirulaguntzaren zenbatekoa murriztu egingo da aurkeztutako gastuen proportzioan, dirulaguntza ordaintzeko baldintzak kontuan hartuta.

12 .LAGUNDUKO EZ DIREN GASTUAK

Ez dira onartuko diruz laguntzeko gastu moduan:

- Diruz lagundutako proiektuak ez gauzatzea.
- Gastuen oharrak eta beste dokumentu batzuk, legeko balioaz faktura edo egiaztapenak jotzeko eska tzen diren arauzko baldin tzak bete tzen ez badituzte.
- Bazkari, afari edo ostalaritza zerbitzukoak diren beste batzuen kostuak, diruz lagundutako ekintzan parte hartzen dituztenekin sortutakoak izan ezik, eta hala denean, egindako gastuaren eta lortu nahi den helburuaren arteko proportzionaltasuna

gorde beharra dago.

13. BATERAGARRITASUNA

Oinarri hauen arabera emandako diru-laguntzak helburu berarekin ematen diren beste diru-laguntzekin bateragarriak izango dira, beti ere gain-finantziazorik gertatzen ez bada.

14. DIRULAGUNTZAREN BALDINTZAK EZ BETETZEA

JUSTIFIKATZEKO EPEA ETA MODUAK atalean zehaztutako datarako dokumentazioa aurkezten ez bada, diru-laguntza itzultzeko prozedura hasiko da.

15. DATUEN BABESA

Eskatzaileen datuen tratamendua abenduaren 5ko 3/2018 Lege Organikoaren arabera izango da.

16. APLIKATUKO DEN ARAUDIA

Deialdi honetan aurreikusten ez den orotarako 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena aplikatuko da.

17. EBAZPENA ETA HELEGITEAK

Deialdi honek administrazio-izaera dauka, eta, horrenbestez, Udalak du ahalmena hala hori lehenik interpretatzeko nola haren aplikazioan eta ebazpenean sor daitezkeen gorabehera oro ebazteko.

Oinarri hauen aurka, Administrazioaren aurkako helegitea jar daiteke Gipuzkoako Administrazioaren aurkako Auzi-gaien Epaitegiaren aurrean, jakinarazpen hau jasotako egunaren biharamunetik hasita zenbatutako bi hilabeteko epearen barruan. Hala nahi izanez gero, bide Administrazioaren aurkako auzi-bideari ekin aurretik, birjarpen-helegitea jarri ahal izango da ebazpena eman zuen organoaren aurrean, jakinarazpen hau jasotako egunaren biharamunean hasita zenbatutako hilabeteko epean.”

[Itzuli dagokion puntura](#)

3.- ERANSKINA

“MENDEKOTASUNA EDO DESGAITASUNA DUTEN PERTSONEK ESTIMULAZIO/ERREHABILITAZIO PROGRAMAK EGITEKO LAGUNTZA-OINARRIAK 2026. URTEA.

ZIOEN AZALPENA

Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legeak, 17,1 artikuluan, udalerriaren eskumen propio gisa aurreikusten du: Diru-sarreraren bermea eta gizarteratzea antolatzea, programatzea eta kudeatzea.

Abenduaren 5eko, Gizarte Zerbitzuei buruzko 12/2008 Legeak 6. artikuluan adierazten duenez, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren helburua da, beste sistema eta politika publiko batzuekin lankidetzan eta koordinatuta, herritar guztien gizarte-ongizatea sustatzea, eta funtsezko helburuak, besteak beste, honako hauek dira:

a) Pertsonen autonomia sustatzea eta mendetasun egoerek pertsonen eta familiei eragiten dizkieten beharrezkoen aurrea hartu eta erantzutea.

b)Bazterketa egoerei aurre hartu eta erantzutea eta pertsonen, familien eta taldeen gizarteratzea sustatzea.

Lehen aipatutako helburuak betetzen laguntzeko, mendekotasuna edo desgaitasuna duten pertsonen estimulazio/errehabilitazio programak egiteko laguntza-oinarri hauek prestatu dira, honako araudi honen babesean:

- Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra eta hura garatzeko erregelamendua, 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartua.

- Dirulaguntzak arautzen dituen Udal Ordenantza (GAO, 2018/06/14).

- Beasaingo Udalaren 2026-2028ko dirulaguntzen plan estrategikoa (1. helburu estrategikoa: gizarte-ekintza sustatzea. 1.1 ildoak: pertsonen gizarteratzea eta autonomia sustatzen duten programak babestea).

Egiaztatu da aurreko ekitaldian egindako deialdiarekin aurretik aipatutako helburuak lortzen lagundu dela, 2025. urtean 10 eskaera onartu bait ziren, 7.863,20€-koak.

Horregatik, Udalaren nahia da horrelako laguntzen deialdia egiten jarraitzea.

1. XEDEA

Beasaingo udalerrian mendekotasuna edo desgaitasuna duten eta estimulazio- edo errehabilitazio-tratamendua behar duten pertsonen 2025.urteko gastuak arintzeko laguntzak arautzea da.

2. AURREKONTUA

0220.480.231.01.01 aurrekontuko kontu sailean "Mendekotasun handia duten haurren estimulazio programetarako laguntzak" 10.000 euroko kreditua kontsignatu da 2026ko aurrekontuan.

Baimendutako gastuaren zenbatekoa handitu ahal izango du eskumena esleituta duen organoak, aurkeztutako eskabideak ebatzi aurretik, aldaketaren zenbatekoa dela-eta, baina horrek ez du beste deialdi bat ekarriko

3. BESTE DIRULAGUNTZEKIN BATERAGARRIAK IZATEA

Diru-laguntza horiek bateragarriak dira beste erakunde publiko edo pribatu batek emandako diru-laguntzekin.

Beste laguntza batzuekin batera ematen bada, eskatzaileak ordaindu beharreko kopurua hartuko da gastutzat, jasotako zenbatekoa kendu ondoren.

Laguntzaren zenbatekoa inola ere ez da izango onuradunak burutu behar duen jardueraren kostua baino handiagoa.

4. ONURADUNAK

Oinarri hauetan jasotako laguntzen onuraduna izateko, ondorengo baldintzak bete behar dira:

1. Beasaingo udalerrian eskaera egin baino gutxienez 6 hilabete lehenagotik erroldatuta egotea.

2. Mendekotasuna edo desgaitasuna duten pertsonak errehabilitatzeko edo estimulatzeako programak ematen dituzten zentro edo instalazioetara joatea.
3. Mendekotasuna edo desgaitasuna duen pertsonak 6 eta 25 urte bitartean izatea.
4. 2-3 graduako mendetasuna duen pertsona gisa baloratua edo % 65eko desgaitasuna edo handiagoa duen pertsona gisa baloratuta egotea.

Salbuespenez, 6 urtetik beherakoentzako eskaerak onartu ahal izango dira, baldin eta Gipuzkoako Foru Aldundiak sustatutako arreta goiztiarreko programan sartzeari ezin denez eta laguntza horien onuradun izateko gainerako baldintzak betetzen badira.

5. DIRU-LAGUNTZAK ZEHAZTEKO IRIZPIDEAK ETA HORIEN ZENBATEKOA

1. Estimulazio-/errehabilitazio- tratamenduaren urteko gastuaren % 100a jasoko dute familia-unitateek, baldin eta urteko diru-sarrerara garbiak Gizarte Larrialdietarako Laguntzen baremoko diru-sarreraren muga sartzen badira. Gehieneko laguntzaren zenbatekoa 1.700 €.

2. Estimulazio-/errehabilitazio-tratamenduaren urteko gastuaren % 80 jasoko dute, urteko diru-sarrerara garbiak Gizarte Larrialdietarako Laguntzen baremoko urteko diru-sarreraren muga gainditzen duten edo beren egoera ekonomikoa baloratzea nahi ez duten familia-unitateek. Gehieneko laguntzaren zenbatekoa: 1.000 €.

3. Mendekotasuna edo desgaitasuna duen pertsonaren gurasoak eta anai-arrebak hartuko dira familia-unitatetzat. Pertsona independizatua badago, familia-unitatea hark eta, hala badagokio, haren bikotekideak eta seme-alabek osatuko dute.

4. Gizarte Larrialdietarako Laguntzen urteko diru-sarreraren muga 2025. urtea, unitate familiarraren neurriaren arabera:

- 1 pertsona: 17.918,78 €
- 2 pertsona: 23.038,43€
- 3 edo gehiago: 26.110,22€

Laguntzak aurreko ekitaldiko errehabilitazio- edo estimulazio-tratamenduen ordainketari dagozkion zenbatekoen gainean aplikatuko dira.

6. DIRU-SARREREN ZENBAKETA

Egoera ekonomikoa aztertzea eskatzen bada, eskaeraren aurreko ekitaldian familia-unitateak jasotako urteko diru-sarrerara garbiak kontuan hartuko dira

Laguntza hauen ondorioetarako, honako hauek hartuko dira diru-sarreratzat: lan-etekinak, pentsioak, prestazioak eta laguntzak.

7. ESKAERA EGITEKO EPEA

Oinarriak BDNSra bidaliko dira, eta GAO-n argitaratzen direnean, eskaerak aurkezteko epea irekiko da 2026ko apirilaren 1etik 30era.

Ezarritako epeetik kanpo egindako eskaera guztiak ukatuko dira.

8. ESKAERAK ETA AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

Eskaerak aurkeztuko dira:

Aurrez aurre
iGunean, jendeaurreko ordutegia
Posta arruntaren bidez
Telematikoki: www.beasain.eus

Aurkeztu beharreko dokumentazioa:

- a) Eskabide-orria, behar bezala beteta eta sinatuta (I eranskina).
- b) NANik edo AIZrik ez badu, eskatzailearen pasaporte eta berarekin erroldatuta eta familia unitatea osatzen dutenena.
- c) Familia-liburua edo dokumentu baliokidea.
- d) Gipuzkoako Foru Aldundiaren desgaitasun-ziurtagiria edo mendekotasun-ziurtagiria (baldin eta udalak lortzearen aurka ez badago, ez da aurkeztu beharko).
- e) Eskeraren aurreko urtean egindako tratamenduaren urteko ordainketaren egiaztagiria.

9. DOKUMENTAZIO ELKARRERAGILEA ETA EGIAZTAGARRIA.

1. Urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 28. artikuluan aitortzen du herritarrek eskubidea dutela dagoeneko administrazio jardulearen esku dauden edo beste edozein administraziok egin dituen dokumentuak ez aurkezteko; horrela, administrazio jarduleak dokumentu horiek kontsultatu edo eskatu ahal izango ditu, salbu eta interesdunak horren aurka egiten badu. Administrazio publikoek elektronikoki bildu behar dituzte dokumentuak, beren sare korporatiboen bidez edo datuen bitartekaritza-plataformei edo horretarako gaitutako beste sistema batzuei kontsulta eginez.

2. Beasaingo Udala Euskadi Nisae-ko administrazioen elkarreragingarritasun- eta segurtasun-nodoaren parte da. Plataforma hori komuna da euskal sektore publikoko administrazio eta erakunde guztientzat, eta datu elektronikoen trukea haien artean eta gainerako administrazioekin ezartzeko nodo autonomiko gisa. Horrez gain, Beasaingo Udalak foru sare korporatiboko aplikazioak edo dokumentuak egiaztatzeko eta lortzeko aukera ematen duten beste sistema batzuk erabiliko ditu.

Plataforma korporatiboen, bitartekaritza-plataformen (Nisae) edo sarbide publikoko plataformen bidez egiaztatuko diren betekizunak honako hauek izango dira:
Kasu guztietan:

- a) Poliziaren Zuzendaritza Nagusia: NA-AIZ, datuak eta egiaztapena.
- b) Gipuzkoako Foru Aldundia: Foru Ogasunarekiko zerga-betebeharrak egunean izatea.
- c) Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorra: Gizarte Segurantzarekiko zerga-betebeharrak egunean izatea.

Egoera ekonomikoa baloratzea eskatzen den kasuetan, gainera:

- d) Gizarte Segurantzako Institutu Nazionala: Gizarte-prestazio publikoak.
- e) Gipuzkoako Foru Aldundia: PFEZ

Familia-unitatea osatzen duten pertsona guztien datuak egiaztatuko dira.

3. Eskatzailea egiaztapen horren aurka badago, berak aurkeztu beharko du dokumentazioa.

4. Udalak egiaztatzen badu eskatzaileak aurkeztutako dokumentazioa osatu gabe edo nahikoa ez dela, 10 egun balioduneko epea emango dio eskatzaileari ez-betetzea edo akatsa zuzentzeko; epe horretan zuzenketarik egin ez bada, eskabidea artxibatu egingo da, beste izapiderik gabe.

10. AZTERKETA ETA EBAZPENA

Udaleko Gizarte Ongizate azpi arloak laguntza-eskaeren espedienteak aztertuko ditu eta Alkateak ebatziko ditu. Eskaerak aurkezteko epea amaitu eta gehienez ere hurrengo 2 hilabeteetan, pertsona interesatuei hartutako erabakiaren berri jakinarazi egingo zaie; eta aldekoa izanez gero, ondoren dirulaguntza ordainduko da.

11. UDAL ZORRAREN KONPENTSAZIOA

Laguntzaren onuraduna Udal Ogasunetikiko zordun denean eta zorra mugaeguna igarotako zor garbi eskagarria denean, Udalak konpentsatu egingo du zor zaiona.

12. ARAU-HAUSTEAK

Datuak ezkutatzeko edota oinarri hauetan ezarritako udal-laguntzetarako eskubidea ematen duten baldintzen arloan iruzurra egiteak, emandako laguntza kentzea eta pertsona onuradunak jasotako diru-kopuruak itzuli behar izatea ekarriko dute.

13. DATUEN BABESA

Eskatzaileen datuen tratamendua abenduaren 5ko 3/2018 Lege Organikoaren arabera izango da.

14. APLIKATUKO DEN ARAUDIA

Deialdi honetan aurreikusten ez den orotarako 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio prozedura Erkidearena aplikatuko da.

15. EBAZPENA ETA HELEGITEAK

Deialdi honek administrazio-izaera dauka, eta, horrenbestez, Udalak du ahalmena hala hori lehenik interpretatzeko nola haren aplikazioan eta ebazpenean sor daitezkeen gorabehera oro ebazteko.

Honako oinarri hauen aurka berraztertze errekurtsoa aurkez daiteke, hilabeteko epean, deialdia onartu duen organo eskudunaren aurrean; bestela, zuzenean kontra egin daiteke bi hilabeteren buruan Administrazioarekiko Auzi Epaitegiaren aurrean.

Aipatutako epeak oinarri hauek GAO-n argitaratu eta hurrengo egunetik hasiko dira zenbatzen bi kasuetan.”

[Itzuli dagokion puntura](#)

4.- ERANSKINA

“BEASAINGO UDALAREN GIZARTE IZAERAKO LAGUNTZEN OINARRI

ARAUTZAILEAK. 2026. URTEA

ZIOEN AZALPENA

Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legeak, 17,1 artikuluan, udalerriaren eskumen propio gisa aurreikusten du: Diru-sarreraren bermea eta gizarteratzea antolatzea, programatzea eta kudeatzea.

Abenduaren 5eko, Gizarte Zerbitzuei buruzko 12/2008 Legeak 6. artikuluan adierazten duenez, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren helburua da, beste sistema eta politika publiko batzuekin lankidetzan eta koordinatuta, herritar guztien gizarte-ongizatea sustatzea, eta funtsezko helburuak honako hauek dira:

a) Pertsonen autonomia sustatzea eta mendetasun egoerek pertsonen eta familiei eragiten dizkieten beharrezkoen aurre hartu eta erantzutea.

b) Babesgabezia egoerek eragiten dituzten beharrezkoen aurre hartu eta erantzutea.

c) Bazterketa egoerei aurre hartu eta erantzutea eta pertsonen, familien eta taldeen gizarteratzea sustatzea.

d) Larrialdi egoerek pertsonen eta familiei eragiten dizkieten beharrezkoen aurre hartu eta erantzutea.

Lehen aipatutako helburuak betetzen laguntzeko, gizarte izaerako laguntzak emateko oinarri hauek prestatu dira, eta aurrerago adieraziko dira, honako araudi honen babesean:

- Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra eta hura garatzeko erregelamendua, 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartua.

- Dirulaguntzak arautzen dituen Udal Ordenantza (GAO, 2018/06/14).

- Beasaingo Udalaren 2026-2028ko dirulaguntzen plan estrategikoa (1. helburu estrategikoa: gizarte-ekintza sustatzea. 1.2 ildoak: baliabide ekonomiko urriak dituzten pertsonen laguntzea).

Egiaztatu da aurreko ekitaldian egindako deialdiarekin aurretik aipatutako helburuak lortzen lagundu dela, 2025. urtean 1.724,55€-ko 4 eskaerari erantzun zitzaien.

Horregatik, Udalaren nahia da horrelako laguntzen deialdia egiten jarraitzea.

1.- XEDEA

Oinarri hauen xedea da Beasaingo Udalaren gizarte-laguntzak arautzea, premiazkotzat jotzen diren gastuei aurre egiteko.

2.- AURREKONTUA

0220.480.231.03.01 aurrekontuko kontu sailean "Gizarte izaerako laguntza bereziak", 7.500 euroko kreditua kontsignatu da 2026ko aurrekontuan.

Baimendutako gastuaren zenbatekoa handitu ahal izango du eskumena esleitura duen organoak, aurrekontuko eskabideak ebatzi aurretik, aldaketaren zenbatekoa dela-eta, baina horrek ez du beste deialdi bat ekarriko.

3.- DEFINIZIOA.

Gizarte izaerako laguntzak Udalak premia larriko gastu ohiko nahiz ezohikoei aurre egiteko baliabide nahikorik ez duten pertsonen zuzendutara daude. Gastu horiek dira bizitza duina izateko ezinbestekoak direnak, alegia, osasuna, higiena, etxebizitza, elikadura eta beste hainbat arloren inguruko gutxieneko parametroak betetzen dituen bizitza izateko funtsezkoak direnak.

4.- BESTE DIRULAGUNTZEKIN EZ BATERAGARRIAK IZATEA

Oinarri hauetan zehaztutako dirulaguntzak ez dira bateragarriak izango beste erakundeek emandako laguntzekin, helburu berdinerako (DSBE, BGD, GLL..).

5.- DIRULAGUNTZEN IRAGANKOR IZAERA.

Aldi baterakoak dira, espero delako behar egoera hori pasatzea aurreikusitako epea igarotakoan, edo behar hori laster estali ahal izatea beste prestazio ekonomiko batzuekin. Ildo horretan, laguntza hau puntuala izango da edo hilabete batzuetara soilik egongo da mugatua.

6. DIRUZ LAGUN DAITEZKEEN GASTUAK.

Gizarte izaerako laguntza hauek bideratuko dira aurrez definitutako gastuak estaltzera, betiere onuradunak ez badu baliabide ekonomiko nahikorik eta gastu horiek ezin badira diruz lagundu beste sistema batzuen bidez edo beste prestazio ekonomiko batzuk eskuratuta.

Diruz lagundu ahal izango dira gastu hauek:

- Etxebizitza bat eskuratzeko sarrera eta mantentzearen ingurukoak (fidantza, alogera).
- Gizarte segurantzaren sistemak diruz laguntzen ez duen eta medikuak agindu duen medikazioa
- Diruz laguntzen ez diren hezkuntza gastuak.
- Ohiko gastuak: elikadura, arropak eta norberaren higienerako produktuak.
- Garraio gastuak (osasun-, okupazio-formazio-, adikzioen errehabilitazio zentroetara, jatorrizko herrialdera edo/eta baliokideak.
- Zorpetze gastuak.
- Udaleko gizarte langileak egindako txostenean teknikoki lehen premiakotzat jotzen diren beste gastu batzuk.

Laguntzaren zenbateko osoak ezin izango du gainditu onuradunak aurkeztutako premiaren kostua.

7.- ONURADUNAK.

Oinarri hauetan jasotako laguntzen onuradun izan daitezke, eskaera egin baino 3 hilabete lehenagotik Beasaingo udalerrian erroldatuta eta bizi diren pertsonak.

Salbuespen gisa, Beasainen gaua ematen duen/igarotzen duen eta egoera prekarioan dagoen pertsonak planteatzen dituen egoerak ere aztertu ahal izango dira.

8.- BALIABIDE EKONOMIKORIK EZ IZATEA.

Laguntza ekonomiko hauen izaera dela eta, onuradunek, laguntzak eskuratu ahal izateko, baliabiderik gabeko egoeran egon behar dute. Egoera hori zehazteko, erreferentzia gisa erabiliko dira Gizarte Larrialdietarako Laguntzei buruzko urtarri-laren 18ko 4/2011 dekretuko irizpide ekonomikoak, 16/2017 Dekretua, urtarrilaren 17koa, Gizarte Larrialdietarako

Laguntzei buruzko Dekretua aldatzen duena eta Eusko Jaurlaritzak Gizarte Larrialdietarako Laguntzak eskuratzeko urtero ezartzen duen bizikidetza unitatearen tamainaren arabera urteko diru-sarreraren muga.

9.- ESKAERA EGITEKO EPEA

Oinarriak BDNSra bidaliko dira, eta GAO-n argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera eskaerak aurkezteko epea kontatzen hasiko da, eta 2026-12-12an amaituko da.

Ezarritako epetik kanpo egindako eskaera guztiak ukatuko dira.

10.- ESKAERA ETA AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

Eskaerak aurkeztuko dira:

Aurrez aurre

iGunean: jendaurreko ordutegian

Posta arruntaren bidez

Telematikoki: www.beasain.eus

Aurkeztu beharreko dokumentazioa ondorengoa izango da:

- Eskaera orria, behar bezala beteta eta sinatuta (1 eranskina)
- NAN-ik edo AIZ-rik ez badu, eskatzailearen pasaportearen eta berarekin erroldatuta eta familia unitatea osatzen dutenena.
- Laguntzaren xede den gastuaren aurrekontua edo zorraren egiaztagiria.
- Lanagatik jasotzen dituen diru-sarreraren egiaztagiria, hala badagokio.

11. DOKUMENTAZIO ELKARRERAGILEA ETA EGIAZTAGARRIA.

1. Urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 28. artikuluan aitortzen du herritarrek eskubidea dutela dagoeneko administrazio jardulearen esku dauden edo beste edozein administrazio-egintza egin dituen dokumentuak ez aurkezteko; horrela, administrazio jarduleak dokumentu horiek kontsultatu edo eskatu ahal izango ditu, salbu eta interesdunak horren aurka egiten badu. Administrazio publikoek elektronikoki bildu behar dituzte dokumentuak, beren sare korporatiboaren bidez edo datuen bitartekaritza-plataformei edo horretarako gaitutako beste sistema batzuei kontsulta eginez.

2. Beasaingo Udala Euskadi Nisae-ko administrazioen elkarreragingarritasun- eta segurtasun-nodoaren parte da. Plataforma hori komuna da euskal sektore publikoko administrazio eta erakunde guztientzat, eta datu elektronikoen trukea haien artean eta gainerako administrazioekin ezartzeko nodo autonomiko gisa. Horrez gain, Beasaingo Udalak foru sare korporatiboko aplikazioak edo dokumentuak egiaztatzeko eta lortzeko aukera ematen duten beste sistema batzuk erabiliko ditu.

3. Deialdi honetan, plataforma korporatiboaren, bitartekaritza-plataformen (Nisae) edo sarbide publikoko plataformen bidez egiaztatuko diren betekizunak honako hauek izango dira:

a) Poliziaren Zuzendaritza Nagusia: NA-AIZ, datuak eta egiaztapena.

b) Gipuzkoako Foru Aldundia:

- Kontuak

- PFEZ

- Ondasun higiezinak

- Ondarea

-Foru Ogasunarekiko zerga- betebeharrak egunean izatea.

c) Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorra: Gizarte Segurantzarekiko zerga-betebeharrak egunean izatea.

d) Gizarte Segurantzako Institutu Nazionala: Gizarte-prestazio publikoak.

4. Eskatzailea egiaztapen horren aurka badago, berak aurkeztu beharko du dokumentazioa.

5. Udalak egiaztatzen badu eskatzaileak aurkeztutako dokumentazioa osatu gabe edo nahikoa ez dela, 10 egun balioduneko epea emango dio eskatzaileari ez-betetzea edo akatsa zuzentzeko; epe horretan zuzenketarik egin ez bada, eskabidea artxibatu egingo da, beste izapiderik gabe.

12.-TRAMITAZIOA.ETA EBAZPENA

Laguntza ekonomikoa tramitatzen hasten da gizarte langileak dena delako gastua baloratuta, ulertzen delako lehen premiako gastua dela.

Prestazioaren egokitasuna neurtuko da parametro hauen arabera:

-Diru-laguntzaren beharra eta urgentzia.

-Bizikidetzaren unitateko baliabide ekonomikoak nahikoak ez izatea gastu horiei aurre egiteko.

-Laguntza puntuala eraginkorra izatea planteatutako behar-egoera konpontzen laguntzeko.

-Eskatzaileak edo, hala badagokio, bere familia-unitateko beste batek Udal honekin batera Arreta Plan Indibidualizatua (IEP) egiteko prestasuna eta lankidetzaren aktiboa izatea. Erreferentziako gizarte-langileak baloratuko du IEP egiteko beharra..

Halaber, baztertu beharko da behar hori estaltzeko beste prestazio ekonomiko batzuk eskuratzeko epean dagoela.

Gizarte langileak txostena egingo du (ebazpen-proposamena) zerk eragin duen beharra, emateko edo ukatzeko proposamena, eta, aldekoa bada, laguntzaren xedea, zenbatekoa eta ordaintzeko modua (osoa edo zatikatua).

Alkateak emango du ebazpena gehienez ere eskaera aurkeztu denetik hurrengo 2 hilabeteetan. Ebazpena eskatzaileari jakinaraziko zaio.

Ebazpena eman ondoren, dagokion laguntza ordainduko da.

13.- ARAU-HAUSTEAK

Datuak ezkutatzeak edota oinarri hauetan ezarritako udal-laguntzetarako eskubidea ematen duten baldintzen arloan iruzurra egiteak, emandako laguntza kentzea eta pertsona onuradunak jasotako diru-kopuruak itzuli behar izatea ekarriko dute.

14.- DATUEN BABESA

Eskatzaileen datuen tratamendua abenduaren 5ko 3/2018 Lege Organikoaren arabera

izango da.

15.- APLIKATUKO DEN ARAUDIA

Deialdi honetan aurreikusten ez den orotarako 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio prozedura Erkidearena aplikatuko da.

16.- EBAZPENA ETA HELEGITEAK

Deialdi honek administrazio-izaera dauka, eta, horrenbestez, Udalak du ahalmena hala hori lehenik interpretatzeko nola haren aplikazioan eta ebazpenean sor daitezkeen gorabehera oro ebazteko.

Honako oinarri hauen aurka berraztertzeke errekurtsua aurkez daiteke, hilabeteko epean, deialdia onartu duen organo eskudunaren aurrean; bestela, zuzenean kontra egin daiteke bi hilabeteren buruan Administrazioarekiko Auzi Epaitegiaren aurrean.

Aipatu epeak oinarri hauek argitaratu eta hurrengo egunetik hasiko dira zenbatzen bi kasuetan.”

[Itzuli dagokion puntura](#)

Eta tratatzeko besterik ezean bilera arratsaldeko seiak eta berrogei minututan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek, akta hau idatzi eta sinatu dut